

## KANPORATZEA ETA ETSAIAREN ZIGOR ZUZENBIDEA

---

Hausnarketa kritikoa ikuspegi aktuarial-gerentzial batetik

ZUZENBIDE GRADUA  
Ikasturtea: 2017/18  
Egilea: Helene COLOMO IRAOLA  
Tutorea: Ana I. PÉREZ MACHÍO

## AURKIBIDEA

<b>I. SARRERA</b> .....	3
1. Motibazioa eta helburuak .....	3
2. Metodologia .....	4
3. Egitura.....	6
<b>II. ESTATUAREN BOTEREA MUGEN KUDEAKETAN</b> .....	7
1. Mugen kontrola: subiranotasunaren funtsezko zeinua eta migrazio politiken oinarritzko elementua .....	7
2. Politika publikoak eta “etorkin” kontzeptuaren eraikuntza soziala. Arrazakeria instituzionala .....	10
3. Immigrazioa egiturazko elementu bezala eta herritartasuna kategoria eskusibo eta baztertzaila bezala.....	13
4. Immigrazio politikak eta Zuzenbidezko Estatua: mugak kudeatzeko politiken giza kostua .....	15
<b>III. ARRAZIONALTASUN GERENTZIALA ETA AKTUARIALISMO</b>	
<b>PENALA. ARRISKUAREN KUDEAKETA</b> .....	18
1. Politika migratzaileen eraldaketa gerentziala.....	20
2. Pentsamendu aktuariala eta immigrazioa. Etorkinaren kriminalizazioa Atzerritartasun Zuzenbidearen bitartez .....	23
3. Eredu gerentzial-aktuarialaren disfuntzioak: zaintzaren gizartea .....	27
<b>IV. “BESTEAREKIKO” BELDURRA: GELDITU, SAIHESTU ETA</b>	
<b>KANPORATU</b> .....	30
1. Indiferentzia eta muga moralen sorrera: Beldurraren, ziurgabetasunaren eta mehatxuaren diskurtsoa.....	31
2. Barne mugen funtzioa eta kontrolerako barne mekanismoak: <i>profiling</i> eta kanporaketa espedienteak.....	33
<b>V. KANPORAKETEN MARKO ARAUEMAILEA: 4/2000 LO ETA</b>	
<b>2008/115/EE ZUZENTARUA</b> .....	36
1. Kasu zehatza: “Kanporaketa espresen” problematika .....	38
<b>VI. ONDORIOAK</b> .....	45
<b>BIBLIOGRAFIA</b> .....	48

<b>ERANSKINA 1 .....</b>	<b>53</b>
<b>ERANSKINA 2 .....</b>	<b>57</b>

## **I. SARRERA**

Jarraian aurkezten den lanaren oinarrian aurkitzen den gaia atzerritarren eta estatuaren arteko boterezko harremana da. Bertatik abiatuta, harreman hori praktikan nola gauzatzen den eta zein ondorio ekartzen dituen aztertu dut, ikuspegi teoriko zein enpiriko kualitatibo batetik. Hain zuzen ere ikerketa enpiriko kualitatibo hau da lan hau gainerako gradu amaierako lanetatik bereizten duena.

Estatuek euren lurraldean egoteko eskubidea nork duen eta nork ez duen erabakitzeko ahalmen subiranoa dutela onartuta ere, botere hau giza eskubideei zor zaien ikuspegitik eratortzen diren mugei loturik dago, bai eta egoera irregularrean aurkitzen diren atzerritarrak titular diren gainerako eskubideei.

Lan honetan zehar beraz, arestian aipatutakoarekin erlazionaturik dauden hainbat aspektuz gainera, kanporaketa zigorraren erregulazioa izan dut aztergai, bai eta bere erabilera politika migratzailearen instrumentu bezala immigrazio irregularrean aurka borrokatzeko. Era berean, erabilera horretatik eratortzen diren agertoki eta praktika ezberdinak aipatu ditut, esaterako, egoera irregularrean aurkitzen diren pertsonak lokalizatuta egoteko bideraturik dauden jardun polizialak, edota kanporaketa espresen problematika.

### **1. Motibazioa eta helburuak**

Hainbat dira gai hau hautatu eta jorratzera eraman nauten arrazoiak. Batetik, jende askorentzako ezezaguna den gai bat dela uste dut, eta nahiz eta problematika hau hainbat liburuetan landuta egon, oraindik ere hutsuneak dituzten eta sakonkiago azter daitezkeen kuestio batzuk badaudela iruditzen zait. Hain zuzen ere hori izan da Euskal Herriko Unibertsitateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikora hurbildu nauena.

Klinika Juridikoak Zuzenbidearen irakaskuntza pedagogikoa eraldatzea bilatzen du, Zuzenbidea irakasteko ohiko modutik urrunduz eta praktikari garrantzia berezia ematen dion diseinu bat sortuz. Praktika honek aukera eman dit justizia sozialarekin zerikusia duten arazo eta problematikak gertutik ezagutzeko eta jadanik finkatuta

dagoena pentsamendu kritikoaren ekarpenez baliatuta zalantzan jarri eta aldatzeko. Irakaskuntza klinikoak aipatutako praktikak justizia sozialarekin lotuta egotea ahalbidetzen du, erakunde eta talde ezberdinekin harremanetan jarri eta, elkarrekin, diskriminatzaileak ez diren eta oinarrizko eskubideak errespetatzen dituzten praktika eta estrategiak diseinatzeko.

Klinika Juridikoari esker graduako praktikak SOS Arrazakerian egin izanak etorkin irregularren egunerokotasuna gertutik ezagutzea ahalbidetu dit; oztopoz josirik dagoen egunerokotasun bat. Errealitate krudel honekin topatzeak gaiarekiko nuen interesa areagotu du, irtenbideak bilatzeko eta bidegabekeriekin amaitzeko nahiak bultzaturik.

Bestetik, eta kontuan hartuta Klinikako lanek izan behar duten egitura, gai hau bereziki aproposa iruditu zait. Izan ere, elkarrizketaren bidea jarraituta lortutako testigantzak dira egun indarrean dauden immigrazio politika murriztaileen giza kostua adierazteko biderik egokiena.

Hala, lan honen bitartez nahiko ezezaguna den baina benetan ezagutzea merezi duen errealitate bati argi eman nahi izan diot, egunero horrelako bidegabekeriak jasan behar dituzten pertsonen eta euren familiei, bai eta profesional bezala pertsona hauek defendatzen eta egoera hauen aurka borrokatzen dutenei ahotsa jarritz. Horretarako, eta datozen lerroetan azalduko dudan moduan, ikuspegi teorikoa eta ikerketa enpiriko kualitatiboa uztartzen dituen metodologia jakin bat eraman dut aurrera.

## **2. Metodologia**

Dakigunez, metodologiak garrantzia berezia hartzen du ikerketa lanen eremuan. Izaera honetako lanek, hipotesi batetik abiatuta, ondorio batzuk ateratzea dute helburu, baina, azken hausnarketa edota emaitza lortzeko bideak ezberdinak izan daitezke.

Nire kasuan, jada aurreratu bezala, zati teorikoa eta zati enpirikoa uztartzen dituen metodologia bat izan dut jarraibide, metodo klinikoa hain zuzen. Zati-tako bakoitza tresna ezberdinez baliatzen da, eta gaiaren inguruko ikuspegi ezberdinak

ematen ditu, baina, bateragarriak diren heinean, bereziki aberatsa den sistema bat lortu daiteke, hau izanik, nire aburuz, arestian aipatutako helburua erdiesteko biderik egokiena.

Zati teorikoari dagozkion atalak egiteko erabili dudan metodologia azterketa dokumentalean, bibliografikoan eta legegintzakoan oinarritu da, aldi berean, atal kualitatibotik eratorritako ekarpen enpirikoarekin osatzen dena.

Ikerketa kualitatiboari dagokionean berriz, helburua, kanporaketaren zigorrak duen inpaktua aztertzea izan da, bizitza une batetik bestera aldatzeak ekartzen dituen ondorio larriei argi ematea. Horretarako, egoera hauek lehen pertsonan bizi eta jasan dituzten pertsonen eremu subjektiboan murgildu naiz, metodologia kualitatibo honen bitartez, elkarrizketetan oinarrituta. Honekin ahotsa eman nahi izan diot esan bezala, gutxiek ezagutzen duten errealitate bati, euren pertzepzio eta bizipen propioak ezagutzeko asmoarekin. Egiteko hau metodologia kualitatiboaren bidez gauzatu daiteke, bilatu nahi dugun horretan soilik zentratzeak eragin lezakeen errealitatearen manipulazioa edo eraldaketa ekiditeko.

Lan hau, hauteman daitekeen moduan, euskaraz idatzirik dago. Hala eta ere, transkripzioetan elkarrizketatuak izan diren pertsonen hizkuntza eta hitz egiteko modua errespetatu ditut. Elkarrizketak leku erlaxatu eta lasai batean egin dira, eta ordubete inguruko iraupena izan dute.

Guztira bi elkarrizketa egin ditut. Bata, bere senar ohia 2015. urtean espainiar lurraldetik kanporatua izan zen emakumeari, Sandrari. Bestea, atzerriartasunaren material aditua den eta, kasu zehatz hori eraman zuen abokatuari, Mikeli. Nire asmoa kanporaketa lehen pertsonan bizi izan zuen etorkina elkarrizketatzea bazen ere – Sandraren senar ohia, Aree- ezinezkoa izan da. Izan ere, Nigerian jarraitzen du, eta zailtasunak izan ditut berekin kontaktuan jartzeko. Zailtasun hauek ordea, orokorrak izan dira horrelako egoera batetik igaro diren atzerritarrekin harremanetan jartzeko orduan, gaiaren sentiberatasuna dela eta. Ondorioz, ez da ezaugarri jakin batzuekin bat egiten duen talde edo kolektibo batean oinarrituta hartutako lagina, arestian aipaturiko trabak medio.

Ikerketa enpiriko hau, eta beraz, elkarrizketak, planteamendu ireki eta malgu batetik landu nahi izan ditut, elkarrizketatu ditudan pertsonen gaiaren inguruan garrantzitsuena kontsideratzen duten hura kontatzeko askatasuna emanez, batez ere, Sandraren kasuan. Berak bizitakoa ezagutu nahi nuen, eta ez nuen bere erantzunak nire galderetara mugatzerik nahi. Azken finean, bizipen pertsonala da eta, beraz, aldaezina. Mikelen elkarrizketak, berriz, Sandraren testigantzatik landutako hainbat aspektu ikuspegi tekniko zein juridiko batetik azpimarratu eta aztertzeke balio izan dit.

### **3. Egitura**

Gai honekin erlazionaturik dauden aspektu ezberdinen analisiaren emaitza diran hau osatzen duten bost atalak, zeinek aldi berean ikerketaren objektu izan diren zati teorikoa eta enpiriko kualitatiboa osatzen duten.

Lehen lau ataletako bakoitzak bere zati teorikoa du, baina, informazio akademiko hutsa izatetik urrun, pentsamendu kritikoaren ekarpenak jasotzen ditu eta, modu honetan, puntu horietako bakoitza perspektiba kritiko batetik lantzea landu dut. Era berean, eta bertan aipatzen denaren errefortzu bezala, zati kualitatibotik – elkarrizketetatik- lortutako informazioa txertatu dut; bosgarren atalak azken ondorioekin bat egiten du.

Lehenengo atalean estatuak mugen kudeaketan duen boterearen inguruan hitz egin dut, espainiar Estatuako migrazio politikak eta honek etorkinaren eraikuntza sozialean duen eragina aztertuz. Era berean, irudi distortsionatu horren ondorio den arrazakeria instituzionalaz mintzatu naiz, nazionalen eta atzerritarren bereizketa eragiten duten, eta Zuzenbidezko Estatuaren ikuspegitik zalantzarria den immigrazio politiketan oinarrituta.

Bigarren atalean zigor Zuzenbideak guzti honetan jokatzeko duen papera zein den azaldu dut, arlo hori ezaugarritzen duten estrategiak gai honetan hartu duten norabidea aztertzearekin batera.

Hirugarren atalean immigrazio irregularrarekiko herritarrek duten jarrera eta horretan oinarrituta etorkina gugandik urrun, baina, aldi berean kontrolatuta izateko estatuak baliatzen dituen mekanismo ezberdinak aztertu ditut.

Laugarren atala bereziki azterketa juridikoan oinarritzen da. Honetan atzerritarren kanporaketa zigorra aztertu dut, lehenik, modu orokor batean, zertaz hitz egiten ari garen ulertzearren; ondoren, kasu zehatz bat aztertzerara pasa naiz, egindako elkarrizketekin lotura zuzena duena eta hauek kokatzeko balio izan didana.

Arestian aipaturiko guztiaren analisi bat egin izanak hainbat ondorio ateratzera eramanez, eta hain zuzen, bosgarren atalean horiek azaldu ditut, zenbait proposamen egitearekin batera, egon daitezkeen hutsuneak betetzen saiatzeko ekarpen pertsonal moduan.

## **II. ESTATUAREN BOTEREA MUGEN KUDEAKETAN**

### **1. Mugen kontrola: subiranotasunaren funtsezko zeinua eta migrazio politiken oinarritzko elementua**

Puntu honetan bi kontzeptu jorratuko ditugu bereziki. Batetik, estatuaren botereaz hitz egingo dugu eta, bestetik, botere hori egikaritzeko modu zehatz bati egingo diogu aipamen: mugen kontrolari. Mugen kontrola terminoa aipatzean, kanpo-mugei egin nahi zaie erreferentzia, estatuan sartu eta ateratzea ahalbidetzen duten horiei.

Jakin badakigu estatu baten boterea bere subiranotasunean oinarritzen dela, hau da, bere lurraldearen gain duen jabetzan. Dena den, jabetza hau ez da absolutua eta, zenbaitetan, baldintzaturik dago. Esaterako, eta hurrengo lerroetan zehar aztertuko dugun moduan, mugak ezarri eta hauek kontrolatzerako orduan.

Behin hau esanda, migrazio politikak aipatu behar ditugu, hein handi batean, estatuak boterea egikaritzeko hautatzen duen bidea politika horietan islatzen baita. Hau da, estatuak bere lurraldeko migrazio politiken izaera finkatu behar du –murriztailea,



biguna, etab.- eta, ondoren, mugen gaineko kontrola modu batean hala bestean egikarrituko du –modu zorrotzago edo ahulago batean-.

Hala eta ere, arestian aipatu bezala, estatu baten subiranotasuna, egun behintzat, ez da absolutua eta, ondorioz, migrazio politiken izaera ez da guztiz erabaki diskrepzionala. Beste hainbat gaietan bezala, immigrazioari dagokionean ere estatu kideek gidalerro batzuk dituzte –Batasunak ezarriak-, kontuan izan behar baitugu migrazio-fluxuek Europa osoan dutela eragina eta beraz, ez dela estatu bati partikularki eragiten dion kontua. Hori dela eta, Europar Batasunaren ikuspegitik garrantzitsua da politika komunen edota, behintzat, gutxiengo batzuen ezarpena.

Bestalde, gogoan izan behar dugu, globalizazio neoliberalaren prozesuek migrazioak kudeatzeko moduan duten eragin zuzena. Barbero autorearen ustetan<sup>1</sup>, *ad hoc* araudi bat sortu da migrazio fluxuak merkatuaren eskakizunetara egokitzeko. Oinarria komenigarritasunaren arabera sortutako araudi bat baldin bada, argi dago soilik estatuaren interesei erreparatzen zaiela, eta ez –edo ez horrenbeste- migrazio politika hauen ondorioak jasan behar dituztenei, ez eta euren beharrei.

Beck autoreak esan bezala, “*globalizazioa, eremu eta lotura transnazionalak sortzen dituen, lekuko kulturei balio handiagoa ematen dien eta hirugarren kulturak lehen plano batera ekartzen dituen prozesu moduan ulertzen da*”<sup>2</sup>. Halaber, gertaera honek kolokan jartzen ditu Estatuak, herritartasuna, demokrazia eta giza eskubideak bezalako oinarritzko kontzeptuak. Esan daiteke, beraz, Estatu garaikideak bizi duen egoera nekeza globalizazio moduan definitu dugunaren ondorio zuzena dela<sup>3</sup>.

Estatu baten eskumen esparrutik at dauden arazo ezberdinei erantzuna emateko, europar Estatuak herrialde mugakideen arteko lankidetzaz hitzarmen politiko eta juridikoak sinatzeko beharra sentitzen dute<sup>4</sup>. Fenomeno berdinentzat eraginda dauden estatuen arteko kooperazioa, beraz, komunak diren arazoei erantzun komun bat emateko

---

<sup>1</sup> BARBERO GONZÁLEZ, I., *Las transformaciones del Estado y del Derecho ante el control de la inmigración*, Ikuspegi. Observatorio Vasco de Inmigración, Zarautz, 2010, 7. orr.

<sup>2</sup> BECK, U., citado en BARBERO GONZÁLEZ, I. eta GONZÁLEZ, A.R., “Estado, migraciones y derecho(s) en la era de la globalización”, *Nómadas. Revista Crítica de Ciencias Sociales y Jurídicas*, Vol. 21(1), 2009, 1. orr.

<sup>3</sup> BARBERO GONZÁLEZ, I., *et. al.*, *Estado*, *op. cit.*, 2. orr.

<sup>4</sup> *Ibid.*, 4. orr.

aukera bat da.

Zentzu horretan, ezinbestean aipatu behar dugu Schengen Akordioa<sup>5</sup>, zeinaren bitartez estatuek euren barne-mugak kendu eta espazio komun bat sortzen duten. Honi esker, estatuek fluxuak interes konkretuen arabera kontrolatzeko instrumentu eta funts ekonomikoak dituzte -besteak beste- eta, modu honetan, estatu batek indibidualki jasan beharreko presio maila gutxitzen da. Alabaina, kanpo subiranotasunaren zati bat galtzea ekartzen du. Estatuek euren mugak eskusiboki “defendatzeko” ahalmena galtzen dute, nazioarteko akordio eta hitzarmenen menpe geratzeko<sup>6</sup>.

Migrazio fluxuen gaiari helduz, eta Castles autoreak adierazi bezala<sup>7</sup>, historikoki estatuak saiatu dira fluxu hauek euren kabuz kontrolatzen, euren boterea eta subiranotasuna zalantzan jar ez zitezen. Haatik, globalizazioaren baldintzek egungo migrazioak heterogeneoagoak izatea eragin dute. Gaur egun, estatuak ez dira gai desiragarria den etorkinaren figura aukeratzeko eta, integrazio prozesu baten faltak, estatuek euren mugen gainean duten kontrol-lana eta barne gizartearen arteko kohesio sozialerako bidea zaildu ditu<sup>8</sup>.

Ondorioz, eta subiranotasuna mehatxaturik ikustean, estatuek mugen gaineko kontrol zorrotzagoak ezartzen dituzte. Immigrazio irregularrak inbasio sentrazioa sortzen du eta, beraz, “eraso” horren aurrean babesteko beharra sortzen da. Aipatzen gatozen moduan, estatuak egun ez daude gaiturik euren lurretan nahi duten etorkin motaren aukeraketa egiteko eta, are gutxiago, azken hauei nazionalen eskubide berak aitortzeko. Arazoa da, Barbero autoreak ongi argitzen duen moduan<sup>9</sup>, atzerritarrak pertsonak diren neurrian, nahiz eta ofizialki lurraldean egoteko baimenik ez izan, estatuek sinatu dituzten nazioarteko giza eskubide unibertsalen inguruko hitzarmen eta

---

<sup>5</sup> BARBERO GONZÁLEZ, I., *et. al., Estado, op.cit.*, 4. orr.: Barbero González eta González autoreek baieztatzen duten moduan, nahiz eta izatez, akordio honen xedea barne-mugak kentzea izan, askatasun zibilen eta mugitzeko askatasunaren murrizpena ekarri ditu. Muga europarren ixte fisikoa zein administratiboa suposatzen du, batasuneko lurraldean legalki bizi diren hirugarren estatuetakoz zein bertako –batasuneko- herritarren eskubideen kaltetan.

<sup>6</sup> *Ibid.*

<sup>7</sup> CASTLES, S., citado en BARBERO GONZÁLEZ, I., *et. al., Estado, op. cit.*, 4. orr.

<sup>8</sup> BARBERO GONZÁLEZ, I., *et. al., Estado, op. cit.*, 4. orr.

<sup>9</sup> BARBERO GONZÁLEZ, I., BLANCO FDZ. DE VALDERRAMA, C., ARRESE IRIONDO, M.N. eta GONZÁLEZ MURUA, A.R., *La defensa de los derechos fundamentales ante la detención, internamiento y expulsión de personas extranjeras. El caso de la Comunidad Autónoma Vasca*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2017, 26-27. orr.

arauen babespean daudela. Dena den, eta hurrengo puntuetan zehar aztertuko den moduan, baieztapen hori zalantzagarrria suertatzen da espainiar Estatuaren kasuan.

Labur esanda, mugen ezarpenak duen xedea aldatu egin da. Egun kanpo mugek betetzen duten funtzioa ez da estatuak subiranotasuna egikaritzen duen lurraldearen zatia finkatzea. Mehatxaturik dagoen subiranotasuna mantentzen ahalegintzearen ideiak indarra galdu du eta, pertsonen mugimenduak merkatuaren beharraren arabera hautatzea bilakatu da helburu<sup>10</sup>.

Beraz, xede nagusia hori izanik, esan genezake egungo onarpen politikak ez direla baliagarriak migrazio fluxuei aurre egiteko. Izquierdo Escribano autoreak porrota eta ezintasuna aipatzen ditu alboko ondorio bezala, izan ere, *“politikak, itsuturik, irtenbiderik aurkitzen ez duenean, orduan hormak eraikitzen dira. Hesien altuera, ordea, herrialde hartzaileak irtenbide politikoak hartzeko orduan agertzen duen gaitasunik ezaren parekoa da”*<sup>11</sup>.

Orain arte kanpo mugetaz eta subiranotasunaren arazoaz mintzatu gara, baina, guzti honek badu eragina estatuaren barnean ere. Kanpo mugen kontrolaz gainera, beharrezkoa da migrazio fluxuak kudeatzeko politika publikoak txertatzea. Hurrengo puntuan, beraz, migrazioaren kudeaketak politika hauetan duen eragina zein azken hauen izaerak etorkinarekiko dugun irudiaren sorkuntzan eta praktika arrazisten areagotzean jokatzeko duen papera aztertuko ditugu.

## **2. Politika publikoak eta “etorkin” kontzeptuaren eraikuntza soziala. Arrazakeria instituzionala**

Estatuak hainbat eremutan subiranotasuna eta ondorioz, boterea, galdu duen bitartean, immigrazioa hura indartzeko erabiltzen da, “bestetasuna” sortzearen bitartez. Helburu horrekin, jatorrizko estatuetakoa migrazioak selektiboki mugatzen ditu, kanpo-

---

<sup>10</sup> BARBERO GONZÁLEZ, I., *Las transformaciones, op. cit.*, 75. orr.

<sup>11</sup> IZQUIERDO ESCRIBANO, A., “Lau arrazoi legez kanpoko immigrazioari buruzko gogoeta egiteko”, BLANCO FDZ. DE VALDARRAMA, C., (argitzailea), *Migrazioak. Mugikortasun berriak mugitzen ari den munduan*, Ikuspegi. Immigrazioaren Euskal Behatokia, Zarautz, 2006, 112. orr.

mugak itxiz edota barrukoetan atzerritarrei buruzko lege zorrotzak ipiniz<sup>12</sup> “*que te cojan y que te manden a tu país es de las cosas más gordas que te pueden pasar en tu vivencia como persona extranjera*”<sup>13</sup>.

Esan bezala, mugen kanpoan geratzen den hura atzerritarra da, baina, gutako bakoitzak, pertzepzio ezberdin bat du pertsona horiekiko eta, pixkanaka, aurreiritzi eta estereotipo guzti horietan oinarrituta, gizarteak etorkinaren itxura eraikitzen du. Halaber, politika publikoak dira kategoria honen eraikuntza sozialerako tresnarik indartsuena<sup>14</sup>.

Edozein kasutan, neurri horien oinarrian aurkitzen dena zera da, gizartearen antsietate eta arazo guztien errudun izango den figura bat aurkitzea, ezinegon eta haserre guztiak harengan irudikatzeko. Estatuaren gaitasun faltaren aurrean, etorkina erabiltzen dugu langabezia, krisia eta larritasun bereko arazoen errua hari leporatzeko. Noski, guzti honek etorkinak kanporatzeko ezinbesteko beharra sortzen du, arazoak eurekin batera desagertuko balira bezala “*nadie se va a escandalizar por que a un extranjero se le expulse*”<sup>15</sup>.

Badirudi beraz, estatua bere herritarrak –nazionalak- “bestetasun” horretatik babesten ari dela, joko bikoitz baten bitartez. Lehenik, erantzunik eman ezin dien arazo eta egoeren errua etorkinen erantzukizuna dela sinestarazten die herritarrei, ondoren, salbatzaile moduan aurkezteko; kaltea besterik eragiten ez duten horiengandik bere herria babesteko, alegia. Paradoxa badirudi ere, diskurtso politikoetan ofizialki jarrera horiek baztertzen diren arren, etorkina, ongizate-estatuarekiko zein gure nortasunarekiko mehatxu moduan ageri da<sup>16</sup>. Ondorioz, biztanleriaren zati batengan sentimendu negatiboak sorrarazten dira, arrazakeriari eta xenofobiari ateak irekiz.

Zuzenbideak eta erakunde juridikoek eragin handia dute errealitatearen eraikuntza sozialean. Añon Roig autoreak ongi adierazten duen moduan “*Zuzenbideak,*

---

<sup>12</sup> BARBERO GONZÁLEZ, I., *Las transformaciones*, op. cit., 5. orr.

<sup>13</sup> Mikelen testigantza.

<sup>14</sup> AGUILAR IDÁÑEZ, M.J. eta BURASCHI, D., “El racismo institucional en las políticas e intervenciones sociales dirigidas a inmigrantes y algunas propuestas prácticas para evitarlo”, *Documentación social* (162), 2011, 145. orr.

<sup>15</sup> Mikelen testigantza.

<sup>16</sup> AGUILAR IDÁÑEZ, M.J., et. al., *El racismo*, op. cit., 144. orr.

*jarrerak bideratu eta erakundeak arautzeaz gainera, identitatea sortzen du, arrazakeria eta diskriminazioa eraikitzen ditu*”<sup>17</sup>. Hala, arau juridikoez zein erabaki judicial eta administratiboez arrazakeria eta xenofobia mota ezberdinak sortzen laguntzen dute, “besteak” zuzenbidearen urratzaile bezala aurkezten duen mezua indartzearen bitartez “*nos vamos quedando con una teoría por ahí de que algo habrá hecho el extranjero si finalmente es expulsado*”<sup>18</sup>.

Arrazakeria instituzionala arraza talde edo etniko jakin bati kaltetzen dion politika, praktika eta prozedura ezberdinez osatua dago eta, kolektibo zehatz horrek berdintasun egoera bat lortzea ekiditen du<sup>19</sup>. Arrazakeriaren eta xenofobiaren instituzionalizazioak, beraz, adierazgarri etnikoari egiten dio erreferentzia, baina, desberdintasunarekin amaitzetik urrun, diskriminazioan are gehiago sakontzeko erabiltzen da. Labur esanda, bereizgarria, desberdintasuna indartzen eta eskusiora zuzentzen duen marka ezabaezina bilakatzen da<sup>20</sup>. SOS Arrazakeria erakundeak bere urteroko txostenetako batean baieztatzen duenez, arrazakeria instituzionala eta soziala proportzionalak dira, lehenengoak bigarrena legitimatu eta babesten baitu<sup>21</sup>.

Aipatutakoa oinarri, eta Aguilar Idañez eta Buraschi autoreek aipatzen duten moduan<sup>22</sup>, egungo dinamika arrazisten aspektu garrantzitsuenetako bat arrazakeria instituzional eta sozialaren arteko gurgil zoro baten existentzia da, *paradigma sekuritario* bezala kalifikatzen dutenaren markoan kokatua. Testuinguru horren ezaugarria da behin eta berriz aipatu den etorkinaren eraikuntza soziala.

Jarrera horiek iritzi-giro jakin batean sortzen dira, oso murriztaileak diren politikak ezartzea eta etorkinen integrazioari oztupoak jartzea ahalbidetuz. Alabaina, taldeko jarrerak aldatzea ez da lan erraza, are gutxiago, kasu honetan gertatzen den

---

<sup>17</sup> AÑÓN ROIG, M.J., “Discriminación racial: el racismo institucional desvelado”, ARCOS RAMÍREZ, F. (argitatzaila), *La justicia y los derechos en un mundo globalizado*, Dykinson, Madrid, 2016, 140. orr.

<sup>18</sup> Mikelen testigantza.

<sup>19</sup> AGUILAR IDAÑEZ, M.J. eta BURASCHI, D., *Prejuicio, etnocentrismo y racismo institucional en las políticas sociales y los profesionales de los servicios sociales que trabajan con personas migrantes*. Conferencia llevada a cabo en el VII Congreso Migraciones Internacionales en España, Bilbao, 2012, 2. orr.

<sup>20</sup> AÑÓN ROIG, M.J., *op. cit.*, 141. orr.

<sup>21</sup> SOS Racismo. *Informe anual 2009. Sobre el racismo en el Estado español*, Icaria, Barcelona, 2009, 211. orr.

<sup>22</sup> AGUILAR IDAÑEZ, M.J. eta BURASCHI, D., “Del racismo y la construcción de fronteras morales a la resistencia y el cambio social: la sociedad civil frente a las migraciones forzadas”, *Servicios Sociales y Política Social* (111), 2016, 33. orr.

bezala, jarrera horiek oinarri kulturala duten kasuan<sup>23</sup> “*a todos nos gusta estar rodeados de personas a poder ser blancas, que hablen Euskara como yo, que si soy católico sea católico, etc*”<sup>24</sup>. Azken hau da, García Álvarez autorearen ustetan, *arraza* kategoria *immigrazio* kategoriagatik aldatzea eragin duena, bai eta *nazioa* faktore diskriminatzaile moduan agertzearen arrazoia, hurrengo puntuan azalduko dugun bezala<sup>25</sup>.

Arrazakeriaren aurka borroka egiteak politika publikoen aldaketa suposatzen du, eskubide eta aukera berdintasuna bermatzeko helburuarekin. Hau da, beharrezkoa da erakundeetatik diskriminazioaren aurkako jarrerak hartzea, bai eta arrazakeria soziala areagotzen duten faktoreak desagerraraztea. Izan ere, eta orain arte aipatutakoaren laburpen moduan esan, etorkinaren eraikuntza sozialak eta honen ondorioz sortzen diren praktika arrazistek benetan argia den lerro bat finkatzen dutela nazionalen eta atzerritarren artean. Bereizketa hau, jarraian aztertuko den bezala, naturalizat hartzen da, etorkina etengabeko bazterkeria eta desberdintasun egoera batean kokatuz.

### **3. Immigrazioa egiturazko elementu bezala eta herritartasuna kategoria eskusibo eta baztertzailer bezala**

Immigrazioa -batez ere irregularra- gaitzesteko arrazoi nagusia, gizartearengan sortzen duen inbasio sententzia da eta, sentimendu horri espainiar Estatuak egun bizi duen egoera zaila gehitzen badiogu, “bertakoen” pribilegioak kontserbatzera bideraturik dauden desberdintze-estrategiak biderkatu egiten dira. Halaber, inbasioaren aurrean babesteko desirak, migrazio politika zorrotzak sortzea eta diskurtso arrazistak ugaritzea ekarri du<sup>26</sup>. Mora Castrok dioen moduan, “*immigrazioaren mehatxuaren aurrean identitate nazionala zaintzeko beharra, etorkinen bazterkeria legitimatzeko funtsezko elementu bilakatzen ari da*”<sup>27</sup>. Haratago,

---

<sup>23</sup> ARANGO, J., “Europa eta immigrazioa: harreman gatazkatsua”, BLANCO FDZ. DE VALDARRAMA, C. (argitatzailer), *op.cit.*, 86. orr.

<sup>24</sup> Mikelen testigantza.

<sup>25</sup> GARCÍA ÁLVAREZ, P., “Protección penal frente a la discriminación racial y étnica: la discriminación de los extranjeros”, GARCÍA AÑÓN, J. eta RUIZ SANZ, M. (argitatzailer), *Discriminación racial y étnica. Balance de la aplicación y eficacia de las garantías normativas*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2013, 235. orr.

<sup>26</sup> MORA CASTRO, A. “Inmigración, participación e integración ciudadana: hacia una nueva configuración de la ciudadanía”, CORELLA SOLANAS, A. (argitatzailer), *Derechos Humanos, migraciones y diversidad*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2010, 175-176. orr.

<sup>27</sup> *Ibid.*, 182. orr.

eta Magaña Romerok baieztatzen duenez<sup>28</sup>, sistema demokratiko berak dira bazterkeria hau egoera arrunta eta berezkoa dela kontsideratzen dutenak, egitura politiko- juridiko konplexu batez baliatuz.

Herritartasunaren karga kontzeptualak –materialak-, beraz, atzerritarrengandik bereizteko balio digu<sup>29</sup>. Ordutik aurrera, nazionalitatea –herritartasuna- lurralde zein muga pertsonal moduan funtzionatzen hasten da, integrazio zein bazterkeria sozialerako eragile nagusi bihurtuz eta, “*benetan <<gutako bat>> zein den finkatuz*”<sup>30</sup>. Bestela esanda, berdintasunezko erlazioa ikusten dugu nazionaltasuna-Estatua-herritartasunaren artean, eta lotura hori erabiltzen dugu edozein kudeaketa politiko legitimatzeko<sup>31</sup>.

Pertsona instrumentalizatzen duen begirada honen atzean, desberdintasun eta segmentazio egoera larriak daude, menpekotasuna eta diskriminazioa eragiten dutenak, baina, aldi berean, kultura eta nazio arazoietan oinarrituta justifikatzen direnak<sup>32</sup> “*a todos nos gusta estar con personas similares, pero esto es algo natural (...) No estamos acostumbrados a tener personas diferentes*”<sup>33</sup>. Hau ez da oinarritzen horrenbeste azalaren kolorean, bai ordea, De Lucasei jarraituz<sup>34</sup>, ikuspuntu kultural eta ekonomiko batetik etorkinak suposatzen duen mehatxuan. Mehatxu hitza aipatzen dugu behin eta berriz, baina, ez da mehatxu erreala, aurreiritziz jositako imajinario batek sortutako asmakuntza bat baizik. Aurreiritzi horrek etorkinaren estatus juridikoa zein politikoa ezegonkortzen ditu, arrotzu egiten ditu, herritarrengandik baztertu. Ondorioz, ikusezinak bilakatzen dira, berdintasun egoera bat lortzea ezinezkoa bihurtuz<sup>35</sup>.

Edozein kasutan, eta arrazakeriaren zergatian sakondu gabe, estatuaren botereak bertan aurkitzen du herritarren arteko bereizketa egiteko teknologia eta justifikazioa,

---

<sup>28</sup> MAGAÑA ROMERA, J., “Migraciones y derechos humanos”, *Corintios XIII: Revista de teología y pastoral de la caridad* (131), 2009, 84-85. orr.

<sup>29</sup> *Ibid.*

<sup>30</sup> *Ibid.*

<sup>31</sup> SUSÍN BETRÁN, R., “Inmigración y barreras en la ciudadanía. El miedo al otro y el derecho a la democracia plural”, *Anuario de Filosofía del Derecho* (31), 2015, 231. orr.

<sup>32</sup> *Ibid.*, 244. orr.

<sup>33</sup> Mikelen testigantza.

<sup>34</sup> DE LUCAS, J., citado en GARCÍA ÁLVAREZ, P., *Protección*, *op.cit.*, 236. orr.

<sup>35</sup> DE LUCAS MARTÍN, J., “Algunos riesgos de las propuestas de “ciudadanización” de los inmigrantes”, CORELLA SOLANAS, A. (argitatzaila), *op.cit.*, 17. orr.

irizpide batzuk izan behar baititu, Gómez Izquierdoren hitzetan, “*hiltzen utzi behar den biztanleriaren eta bizitzeko babestua izan behar duenaren artean bereizteko*”<sup>36</sup>.

Mugek eta Zuzenbide bereziak arrotza dena eraikitzen dute, baina, bada berezitasun bat honetan. Arrotzaren presentzia funtzionala den neurrian, onartu egiten dugu “*en términos utilitaristas, sabemos que o están aquí, o a las abuelas o los abuelos o a los caseríos a ver quién se va a trabajar*”<sup>37</sup>. Presentzia hori mehatxu bilakatzen den –eta, dugun- momentutik, ordea, arrotza dena baztertu eta kanporatu nahi dugu. Alabaina, mehatxu horretan funtzionaltasun berri bat ikusten dugu, gizartearen beldur eta antsietate guztien erruduna izatearena alegia<sup>38</sup>. Babesa bilatzen duten pertsonetikiko gizarteak erakusten duen axolagabekeria, patologia soziala izateaz urruti, desberdintasunak normalizatzearen emaitza da, mugen eraikuntza eta pertsona hauen eskubideen urrapena ahalbidetzen dituen jarrera<sup>39</sup>.

Guzti hau azterturik, ezinbestekoa dirudi espainiar Estatuako immigrazio politikaren egokitasuna zalantzan jartzea, bereziki, Zuzenbidezko Estatuak bermatu behar dituen eskubide eta askatasunen ikuspegitik.

#### **4. Immigrazio politikak eta Zuzenbidezko Estatuak: mugak kudeatzeko politiken giza kostua**

Orain arte azaldutako guztiak ondorio zuzenak ditu espainiar Estatuaren immigrazio politiketan. Estatuaren subiranotasuna kolokan egoteak, etorkinaren eraikuntza sozialak eta herritartasuna kategoria baztertzailer bezala erabiltzeak, ezinbestean eragiten du estatu bateko migrazio politikak sortzerako orduan. Migrazio mugimenduak oinarrizko eskubideen ahulgunea bihurtu dira. Asko dira estatuak ezkutuko immigrazioaren aurka borrokatzeko erabili ditzakeen bideak eta, asko ere, kaltetuak suertatu daitezkeen etorkinen giza eskubide eta oinarrizko eskubideak<sup>40</sup>.

---

<sup>36</sup> GÓMEZ IZQUIERDO, J., “La conceptualización del racismo en Michel Foucault”, *Interdisciplina*, Vol. 2(4), 2014, 124. orr.

<sup>37</sup> Mikelen testigantza.

<sup>38</sup> SUSÍN BETRÁN, R., *op. cit.*, 233. orr.

<sup>39</sup> AGUILAR IDAÑEZ, M.J., *et. al.*, *Del racismo*, *op. cit.*, 31. orr.

<sup>40</sup> MARTÍNEZ ESCAMILLA, M., “Inmigración, Derechos Humanos y Política Criminal: ¿Hasta dónde estamos dispuestos a llegar?”, *Indret: Revista para el Análisis del Derecho* (3), 2009, 8. orr.



Aguilar Idañez eta Buraschi autoreek adierazi bezala, interbenitzeko edozein moduk errealitatea ikusteko modu bat suposatzen du, errealitatea ikusteko edozein moduk interbenitzeko modu jakin bat ekartzen duen bezala. Halaber, interbentzio modu hauek etorkinen, euren testuinguruaren, baliabideen eta arazoaren begirada espezifiko bat erreproduzitzen dute, gehienetan, etorkin kategoriaren eraikuntza sozialean oinarrituta. Autore hauen ustetan, arazo bat kokatzeko moduak hura konpontzeko bidea finkatzen du eta, ez kasu gutxitan, kokapen oker bat izaten da arazoari irtenbide egokia bilatzea eragozten duena<sup>41</sup> *“la población, la ciudadanía, sigue asentada, sigue pensando que la inmigración es algo temporal (...) Y esto es, no una gran equivocación, sino una mirada no realista del fenómeno migratorio”*<sup>42</sup>.

Kasu honetan, argi dago horixe dela gertatzen ari dena, immigrazioa murrizteaz urruti, gora egiten ari baita urteak igaro ahala. Egoera honen aurrean inbasio sententzia handitzen da eta, ondorioz, mugen kontrol gero eta zorrotzagoak ezartzen dira –batez ere immigrazio irregularra saihesteko-, arrakasta handirik gabe. Porrot honen zergatia Delgado autoreak azaltzen duenez, egun indarrean dagoen Atzerritarrei buruzko Legean bertan aurkitzen da (4/2000 LO, urtarrilak 11, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa, eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzkoa)<sup>43</sup>. Bere ustetan, atzerritarrei buruzko legeetatik lortzen dena ez da etorkinen sarrera arautzea –modu batean edo bestean sartuko baitira-, “legezko” eta “legez kontrako” etorkinen arteko bereizketa arautzea baizik. Eraitza, beraz, ez da etorkinen kopuruaren beherakada, lan merkatuko ogibiderik okerrenak asebetetzera zuzendurik dagoen azpiroletalgo baten areagotzea baizik<sup>44</sup>. Labur esanda, baimenik gabe sartzearen giza kostua izugarria da.

Hala, bada estatuko immigrazio politikak Zuzenbidezko Estatuaren eskakizun eta printzipioekin bateraezinak direla baieztatzen duenik. Esaterako, Martínez de Pisón Caverok argi dauka indarrean dagoen immigrazio politikak etorkinak objektutzat hartzen dituen heinean, Zuzenbidezko Estatuak sostengatzen dituen printzipioen urraketa dakarrela. Bere ustetan, politika egokia *“etorkina pertsonatzat hartzen duena*

---

<sup>41</sup> AGUILAR IDAÑEZ, M.J., *et. al*, *Prejuicio*, *op. cit.*, 5. orr.

<sup>42</sup> Mikelen testigantza.

<sup>43</sup> «BOE» núm. 10, de 12 de enero de 2000, páginas 1139 a 1150.

<sup>44</sup> DELGADO, M., “La producción legal de ilegales”, *El País*, 2000. Recuperado de: [https://elpais.com/diario/2000/10/16/opinion/971647210\\_850215.html](https://elpais.com/diario/2000/10/16/opinion/971647210_850215.html)

da, eskubideen subjektu bezala, bere askatasuna eta erabakiak errespetatzen dituen, bizitza duina eraman dezan saiatzen dena, eta guztiontzako tratu berdintasuna bermatzen duena”<sup>45</sup>. Izan ere, herritar guztion tratu berdintasuna, arraza edo etnia alde batera utzita, Zuzenbidezko Estatu demokratikoaren oinarritzko elementua da<sup>46</sup>.

Ildo berean, De Lucas autorearen ustetan<sup>47</sup>, oinarritzko giza eskubideen aitortpena eta bermea kolokan jartzen dira gure artean bazterkeria justifikatzeko tresna bezala funtzionatzen duen egoera administratibo baten baitan: irregularraren estatusa. Bere ustetan, inoiz ez dugu izan immigrazioarekiko ikuspegi errealik eta, etorkinak ez ditugu pertsonatzat hartzen, momentu honetan soberan dauden lan merkaturako tresna bezala baizik. Ekonomia suspertzen denean ere ez ditugu pertsona bezala beharko, bai ordea, esaneko, integragarri, ia ikusezin eta itzultzeko errazak diren langile bezala.<sup>48</sup> Hala, etorkinari herritarraren tratua ukatzen diogunez, pertsona horien oinarritzko eskubideak erabat urratzen diren egoerak sortzen dira<sup>49</sup>, datozen puntuetan sakonago aztertuko den moduan *“le llamaron para ir a recoger el pasaporte a comisaría (...) no me dejaron ver a Aree, ni tampoco ponerme en contacto con él”*<sup>50</sup>.

Estatuak, nazionalekin erabiltzen ez dituen akzio edo ekintza jakin batzuk aurrera eraman ahal izateko, etorkinaren giza kalitatea jaitsi beharra dauka. Soilik horrela hartu ditzake hainbat neurri, Zuzenbide humanitarioaren ikuspegitik onartu ezingo lirakekeenak. Estatuaren ekintzak, izatez, ez dira legezkoak edo legez kontrakoak, bidezkoak edo bidegabeak, gizartea bera da –hemitarrak- politika horien izaera baldintzatzen duena. Azken hau da azaltzen gatozen guztiaren helburua. Estatuak immigrazioaren fenomeno negatiboki tratatzen du, subiranotasunaren eta identitate nazionalaren aurkako eraso moduan eta, behin gizarteari hau sinestarazita, honen onespina lortzen du, hala, etorkinekiko benetan bortitza den jarrera hartu ahal izateko

---

<sup>45</sup> MARTÍNEZ DE PISÓN CAVERO, J.M., “La (no) política de inmigración y el estado de derecho”, *Inmigración y ciudadanía: perspectivas sociojurídicas*, 2003, 132-133. orr.

<sup>46</sup> GARCÍA AÑÓN J., “Discriminación, exclusión social y conflicto en sociedades multiculturales: La identificación por perfil étnico”, GARCÍA AÑÓN, J. eta RUIZ SANZ, M. (argitatzailak), *op.cit.*, 283. orr.

<sup>47</sup> DE LUCAS, J., TORRES, D., *Inmigrantes: ¿cómo los tenemos? Algunos desafíos y (malas) respuestas*, Talasa, Madrid, 2002, 30. orr.

<sup>48</sup> DE LUCAS, J., *El Periódico*, 2002. Recuperado de: <https://www.elperiodico.com/es/sociedad/20150911/al-inmigrante-se-le-regatea-la-condicion-de-ser-humano-4503663>

<sup>49</sup> MAGAÑA ROMERA, J., *op. cit.*, 82-83. orr.

<sup>50</sup> Sandraren testigantza.

*“si el Gobierno transmite un mensaje en el que viene a decir que al inmigrante malo hay que expulsarlo, terminamos creyendonos todo esto y viendo no mal, incluso bien, que a los extranjeros se les expulse”<sup>51</sup>.*

Zentzu honetan, Aguilar Idañez eta Burashi autoreek honakoa baieztatzen dute:

*“Gure estatuaren mugen kudeaketarako sistema ezaugarritzen duen bortizkeria ezin mantendu daiteke soilik botere gogor bat erabilia. Beharrezkoa da botere bigun bat, herritarren zirrarak diziplinatu eta gure baloreen eta etorkinekiko gaitzespenaren arteko desadostasun moralak ebatziko dituen. Hau da, subjektuei egoera baztertzailleak, bidegabeak eta bortitzak interpretatzen utziko dien erreferentzia markoak, estatus quo-a zalantzan jarri gabe”<sup>52</sup>.*

Aitzitik, eta Barbero autorearekin bat eginez: *“Mugen kudeaketa murriztaile eta gogor bat mantentzen jarraitzeak zentzua galtzen du, bereziki, bizitza, osotasun fisikoa eta duintasuna bezain oinarritzkoak diren eskubideen urraketaren trukean bada”<sup>53</sup>.*

### **III. ARRAZIONALTASUN GERENTZIALA ETA AKTUARIALISMO PENALA. ARRISKUAREN KUDEAKETA**

Aurreko atalean jorratu dugun gaietako bat politika publikoak izan dira, bai eta hauek etorkin kontzeptuaren eraikuntza sozialean duten indarra. Jarraian, politika hauetan txertatu berri den arrazionaltasun gerentzialaz eta pentsamendu aktuarialaz hitz egingo dugu, immigrazio politiketan izan duten eragina aztertzearekin batera.

Estatu sozialaren gainbehera bizitzen ari garen honetan sistema penalak jasan duen bilakaera funtzionalaren eragile nagusia, segurtasun-gabeziaren pertzepzio sozialaren larrialdia da. Inguruabar honek, egungo gizartearen ezaugarria dena, eragin

---

<sup>51</sup> Mikelen testigantza.

<sup>52</sup> AGUILAR IDAÑEZ, M.J., *et. al.*, *Del racismo*, *op. cit.*, 32. orr.

<sup>53</sup> BARBERO GONZÁLEZ, I., “Lectura contemporánea del régimen de frontera en Europa: un coste inhumano”, *Revista de Derecho Migratorio y Extranjería* (46), 2017, 143. orr.

handia izan du sistema penalean, eta estatuko politiketan bere presentzia areagotzeaz gainera, askatasunaren eta segurtasunaren arteko krisia nabarmendu du<sup>54</sup>.

Kasu honetan, beraz, arriskuaren edota segurtasun-gabeziaren sentsazio sozialaz hitz egin behar dugu. Hain zuzen ere, arestian aipatu dugun ziurtasun-gabeziaren irudipen hori arriskuaren faktore objektiboetatik eratortzen bada, garrantzitsuena, Brandariz García autoreak dioen moduan<sup>55</sup>, ez da faktore objektibo horien existentzia, horien hautemate subjektiboa -kolektiboa- arrisku bezala baizik. Segurtasun-gabeziaren pertzepzio soziala ordea, argiki neurritz kanpoko da arriskuen garrantzia objektiboarekin alderatuta. Dena den, esanguratsuena, segurtasun-gabezia hori tolerantzia sozialaren murriztapenean bilakatzeko egon daitekeen arriskua da, kontrolaren eta zaintzaren obsesioak bultzaturik, izaera kriminaleko arrisku eramaile bezala hautematen ditugun sektoreen aurrean indartzeko eta banantzeko desira bezala<sup>56</sup>.

Egungo gizartea beldurraren edota arriskuaren gizartea bezala kalifikatzeak irismen zabaleko ondorioak ditu errealitate sozialaren hainbat eremutan. Hala, arrisku berrien aurrean etengabe areagotzen ari den ziurtasun-gabezia subjektiboak, arriskua benetakoa ez denean ere existitzen denak, herritarrek arriskuaren prebentzioa eta segurtasunaren hornikuntza galdatzea dakar<sup>57</sup>. Zentzu honetan, beraz, lehentasunezko eremu bat, kontrol sozial formala da, hau da, estatuak eta botere publikoek ziurtasun-gabezia hori saihesteko dituzten baliabideak<sup>58</sup>. Egoera honen aurrean, bada egungo zigor Zuzenbidea aipaturiko arriskuaren gizarteari erantzuteko erabiltzen den eta etengabe zabaltzen ari den Zuzenbidea dela baieztatzen duenik. Horien artean, Jiménez García autoreak, argi dauka hedapen horren ondorio zuzena dela gizartearen artean txertatu den gehiegizko segurtasun-gabezia sentimendua<sup>59</sup>.

Interesatzen zaigun eztabaida, beraz, aipatzen gatozen segurtasun-gabezia sentsazio horren markoan diseinatutako praktika, estrategia eta taktika politiko-

---

<sup>54</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *Política criminal de la exclusión. El sistema penal en tiempo de declive del Estado social y de crisis del Estado-nación*, Comares, Granada, 2007, 53. orr.

<sup>55</sup> *Ibid.*

<sup>56</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *Política*, *op.cit.*, 65-66. orr.

<sup>57</sup> MENDOZA BUERGO, B., *El Derecho penal en la sociedad del riesgo*, Civitas, Madrid, 2001, 25. orr.e.o.

<sup>58</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *Política*, *op.cit.*, 80. orr.

<sup>59</sup> JIMÉNEZ DÍAZ, M.J., "Sociedad del riesgo e intervención penal", *Revista electrónica de ciencia penal y criminología* (16), 2014, 4. orr.

kriminaletan oinarritzen da. Guzti honek, zigor Zuzenbideak hartu berri duen korronteari erantzuten dio, politika-kriminalaren material *estrategia aktuarial* izenez ezagutzen dena<sup>60</sup>. Metodo aktuarialek, zenbait taldeen kriminalitate tasetan edota ezaugarrietan oinarrituta, aurreikuspen estatistikoak erabiltzen dituzte kolektibo horietako norbanako bakoitzari aplikagarri zaizkion neurri juridiko-penalak zehazteko. Hau da, alde batera uzten dituzte jokaera edota inguruabar pertsonalak. Helburua, arriskuaren kudeaketa da eta, horretarako, sektore jakin batzuen arriskugarritasunaren neutralizazioa hartu behar da oinarritzat<sup>61</sup>.

Era berean, pentsamendu aktuariala erakunde publikoetan txertatu berri den arrazionaltasun gerentzialarekin lotu behar da, zeinak kontuan hartzen duen bai justiziaren bai gastu publikoaren kostua. Eskasak diren baliabide batzuk irabazi handienak eman ditzaketen eremuan kokatzean datza, bereziki arrisku-talde zehatzen kontrolean<sup>62</sup>. Azken finean, arrazionaltasun gerentzial honek, erabilgarri dauden baliabide ezberdinak aurrezteko helburu duten praktika ezberdinen ezarpena bideratzen du.

Orain arte aipaturikoa, datozen puntuetan sakonago aztertuko dugunaren aurrerapen txiki bat besterik ez da izan, eredu gerentzial-aktuarialak suposatu dituen aldaketak zein hauen norainokotasunaren ikuspegi orokor bat izatearren. Horretaz gainera, eredu honen disfuntzioak ere aztertuko ditugu, Zuzenbidezko Estatuaren oinarritzko zenbait eskakizunetatik urruntzen dela esan baitaiteke.

## **1. Politika migratzaileen eraldaketa gerentziala**

Espainiar Estatuaren testuinguru ekonomiko berriak eragin handia izan du politika migratzaileetan, bai eta hauek gobernatzeko moduan. 2008ko krisiaren aurretik, krisiaren logikatik zuzendutako estatu bat izatera heldu aurretik, migrazioen kontrola antolatzeke modua oraingoaren oso ezberdina zen. Brandariz autoreak baieztatzen duen

---

<sup>60</sup> JIMÉNEZ DÍAZ, M.J., *op.cit.*, 4. orr.

<sup>61</sup> HARCOURT, B.E., *Política criminal y gestión de riesgos. Genealogía y crítica*, Ad hoc, Buenos Aires, 2013, 85-86. orr.

<sup>62</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *Política*, *op.cit.*, 83-84. orr.

bezala<sup>63</sup>, migrazioa kontrolatzeko politiken eraldaketa gerentziala eman da. Gerentzialismoa, jada aurreratu den bezala, politika publikoak antolatze eta egikaritzeko moduan ematen den arrazionaltasun mota bat da, efikazian baino gehiago, efizientzian oinarritzen dena; gobernuek egin beharreko guztia ez egitea, ahal dutena baizik. Eta, ahal duten hori, kostu-irabazia erlazio hoberena kontuan hartuz egitea.

Dena den, eta migrazio fluxuak kontrolatzeko erregimenarekin gertatzen denaren antzera, politika migratzaileen eraldaketa gerentziala ezin daiteke guztiz aldentu Europar Batasuneko erakundeek migrazioen kontrolaren eremuan betetzen duten zeregin garrantzitsutik. Europar Batasuneko kultura politiko eta administratiboak, tradizionalki espainiako Administrazioak baino joera handiagoa izan du politika publiko gerentzialekiko. Batasunak asistentzia teknikoa eta politikoa zein laguntza ekonomikoa emateaz gainera, espainiar politika penaletan arrazionaltasun gerentziala txertatu du<sup>64</sup>. Hala, azken urte hauetako kontrol-politiken alderdi zigortzailearen berrantolaketa da espainiar penaltatean logika gerentziala barneratu denaren adierazlerik hoberena<sup>65</sup>.

Politika publikoen eraldaketa hori ikus daiteke, esaterako, kanporaketen murrizketan –exekutatuak zein ez exekutatuak-, deportazio sistemaren berrantolaketa selektiboan, eremu polizialari eragin dioten aldaketetan eta Atzerritarren Barneraketa Zentroen erabileran bai eta arlo politikoan eman diren oinarrizko zenbait aldaketetan. Aurreko egoeraren gabeziek, efizientzian oinarritutako kontrol-politiken noranzko bera jarraitu behar izatea eragin dute<sup>66</sup>.

Aurreratu den bezala, ezarritako kanporaketen eta exekutatzen diren deportazioen arteko aldea murriztea eraldaketa gerentzialak eragin duen aldaketetako bat izan da. Halaber, ezin daiteke azaleko aldaketa baten moduan hartu, ez oinarrizko eskubideen ikuspegitik behintzat. Kanporaketa espediente bat ezarrita duen etorkina edozein unetan kanporatua izango denaren etengabeko beldurrarekin bizi da, ilunpean, bazterkerian:

---

<sup>63</sup> Zentzu honetan: BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *El gobierno de la penalidad. La complejidad de la Política criminal contemporánea*, Dykinson, Madrid, 2014; eta BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *El modelo gerencial-actuarial de penalidad. Eficiencia, riesgo y sistema penal*, Dykinson, Madrid, 2016.

<sup>64</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A. eta FERNÁNDEZ BESSA, C., “Transformaciones de la penalidad migratoria en el contexto de la crisis económica. El giro gerencial del dispositivo de deportación”, *Indret: Revista para el Análisis del Derecho* (4), 2016, 18. orr.

<sup>65</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *El modelo*, op.cit., 147. orr.

<sup>66</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., et.al., *Transformaciones*, op.cit., 5. orr.e.o.

*“Aree no volvía a casa. Antes solía salir todos los días al parque a jugar con los niños, pero todo eso cambió. Cada persona que veía en la calle le parecía que era policía y que lo iban a detener de nuevo. El miedo era constante”*<sup>67</sup>.

Gainera, bere egoera erregularizatzeko oztopoak dituenek, ekonomia informal batean biziraun behar du, erraztasunez ustia daitekeen lanerako indar bezala. Azken honek arazo humanitarioa dirudi, baina, baita efizientziarena ere, espainiar Estatuak kanporaketa espediente asko ezartzeko joera erakutsi izan baitu, hauek exekutatzera heldu gabe<sup>68</sup>.

Hala, eta aipaturikoaz gainera, deportazioen sistema benetan garestia den sistema izanik, ez da harrizkoa logika gerentzialak hura nabarmentzea eta, tresna juridiko egokiak hautatuz (kanporaketa penalak eta kanporaketa administratiboen kategoria ezberdinak), selektiboki antolatzea. Labur esanda, egungo politika migratzaileek efizienteagoa eta gerentzialagoa den bide bat jarraitzen dute, gutxiagorekin gehiago egitean oinarritzen den bide bat<sup>69</sup>.

Zentzu honetan, “kanporaketa espresak” aipatu behar ditugu. Termino honek erreferentzia egiten dio lurralde jakin bat helmuga duen garraio kolektibo baten erabilgarritasunari. Hala, nazionalitate hori eta kanporaketa espediente bat ezarrita duen etorkina atxilotzen da, eta kustodia polizialaren gehieneko epea -72 ordu- igaro aurretik, atxilotua aberriratzeko garraiora eramaten da, Atzerritarren Barneraketa Zentro batean barneratzea ekidinez *“Aree estaba en la sala de embarque ya para montarse en el avión”*<sup>70</sup> (...) *“la ejecución de la expulsión fue inmediata”*<sup>71</sup>. Sistema hau, barneratzearena baina merkeagoa izateaz gain -atxilotua polizia-etxean mantentzen da-, eraginkorragoa ere bada, izan ere, exekuzioa bi edo hiru eguneko epe laburrean ematen da eta, abokatu-laguntzak edota errekursoak tarteratzeak eragin litzakeen atzerapenak ekiditen ditu, kasu gehienetan, kanporaketaren exekuzioa bermatuz<sup>72</sup> *“tuve una chica que había estado antes aquí, que fue expulsada a Honduras en una noche. Fueron a por ella, y en un par de horas estaba montada en un avión. Y todo ello sin asistencia*

---

<sup>67</sup> Sandraren testigantza.

<sup>68</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *et.al.*, *Transformaciones*, *op.cit.*, 8. orr.

<sup>69</sup> *Ibid.*, 9. orr.e.o.

<sup>70</sup> Mikelen testigantza.

<sup>71</sup> *Ibid.*

<sup>72</sup> BARBERO GONZÁLEZ, I., *Lectura*, *op.cit.*, 142. orr.

*letrada*”<sup>73</sup>.

Esan daiteke, beraz, gerentzialismoaren ikuspegitik kanporaketa mota hauen produktibitatea ukaezina dela. Eredu honen funtzionamendu egokiak antolaketa arretatsua eta informazioaren kudeaketa zehatza besterik ez du eskatzen, kanporatuak izan daitezkeen etorkinak -eskuragarri dagoen garraioaren estatukoak direnak-, aurkitu eta atxilotzeko<sup>74</sup>.

Hala eta guztiz ere, nahiz eta etorkinen atxiloketa kopurua murriztu egin den, kanporaketa mota hauei eman zaien lehentasunak *profiling*-aren<sup>75</sup> erabilera areagotu du, arestian aipaturiko aurkikuntza zehatz hori posible egiteko tresna bezala. Horretaz gain, barneraketa zentroen beharrezkotasunik eza nabarmena da, kanporaketa mota honek lortu nahi duena barneratzea ekiditea baita hain zuzen<sup>76</sup>.

Aipatzen gatozen guztiaren ondorioz, ezinbestekoa dirudi politika migratzaileak sakonki birpentsatzea euren izaera aldatzeko eta, hala, etorkinen eskubideekin errespetutsuagoak izateko. Aldaketa hau posible izan dadin, ordea, beharrezkoa da, jarraian aztertuko dugun moduan, pentsamendu aktuarialaren ideiak eta espainiako Atzerritarrei buruzko Legearen egokitasuna zalantzan jartzea, etorkinak pertsonatzat hartu nahi baditugu behintzat.

## **2. Pentsamendu aktuariala eta immigrazioa. Etorkinaren kriminalizazioa Atzerritartasun Zuzenbidearen bitartez**

Jarraian, politika-kriminalak espainiako sistema penalean izan duen azken bilakaeraren inguruan hausnartuko dugu: etorkinen –irregularren- eraikuntza subjektu arriskutsu bezala.

---

<sup>73</sup> Mikelen testigantza.

<sup>74</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *et.al.*, *Transformaciones*, *op.cit.*, 13. orr.

<sup>75</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *El modelo*, *op.cit.*, 178. orr.: Profiling-aren teknikaren bitartez arau-hausleen profilak egiten dira. Profil hauek zein subjektu kontrolatu behar den jakiteko interbentzio poliziaileko arauak sortzen dituzte, ordena mantentzeko, delituak saihesteko, arau-hausteez ohartzeko edota erantzule edo susmagarriak atxilotzeko helburuarekin.

<sup>76</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *El modelo*, *op.cit.*, 160. orr.e.o. eta BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *et.al.*, *Transformaciones*, *op.cit.*, 18. orr.



Sistema penalak selektiboki jarduteko tendentzia duela gauza jakina da pentsamendu kriminologikoaren arloan, baina, egitate honek, garrantzia berezia hartzen du estrategia politiko-kriminalen markoan, pentsamendu aktuarialak bultzatutakoekin gertatzen denaren antzera<sup>77</sup>. Aktuarialismoak ez dio erreparatzen subjektu indibidualari, taldeari baizik; bertatik eratoritzen den arriskua da neutralizatu nahi dena. Azken finean, eta jada aurreratu den moduan, eredu honek taldearen ezaugarriak edota kriminalitate tasak hartzen ditu kontuan, ondoren, talde hori osatzen duten subjektuei zigor indibidualizatua ezartzeko. Honek posible egiten du aurrekari penalik ez duen pertsona bat talde arriskutsuaren parte dela kontsideratzea<sup>78</sup>.

Logika aktuarialak ez du kriminalitatea murriztea edo honekin amaitzea bilatzen, hori ezinezkoa denaren ideiatik abiatzen baita hain zuzen. Hala bada, pentsamendu aktuarialak, kriminalitatetik eratorritako arriskuen kudeaketa eta berrantolaketara zuzenduta dagoena, arrisku-talde nagusiak identifikatu eta zaintza eta kontrol errekurtsuak haietan kontzentratzeko beharra mantentzen du. Haratago, baliabide eskasen ekonomizaziotik abiatzen den politika-kriminal batek –arrazionaltasun gerentziala oinarri- lehentasunezko kontrol bat merezi duten giza taldeak identifikatzeko gai izan behar du<sup>79</sup>.

Bestalde, azken helburutzat efizientzia duen eredu bat denez, hori lortzeko bideetako bat zigor Zuzenbidearen administrazioa da. Hala, eta zigor Zuzenbidearen bermeetatik ihes egiteko, zigor Zuzenbidearen eta Zuzenbide administratibo zigorzaillearen arteko banaketa lausotu egiten da, azken hau, sektore arriskutsuak kontrolatzeko modu efikazagoa eta efizienteagoa dela kontsideratuz. Zuzenbide berezi hau sortzearen ondorioetako bat, jarraian aztertuko dugun moduan, arau juridikoetan oinarritzen den egituraketa sozialaren legitimazioa da, hau da, gizarteak onartzea, segurtasun-gabeziaren aurrean beharrezkoa dela estatutu juridiko bereziak sortzea<sup>80</sup>.

---

<sup>77</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A. eta FERNÁNDEZ BESSA, C., “La construcción de los migrantes como categoría de riesgo: fundamento, funcionalidad y consecuencias para el sistema penal español”, PALLIDA, S. eta BRANDARIZ GARCÍA, J.A. (zuzendariak), IGLESIAS SKULJ, A. eta RAMOS VÁZQUEZ, J.A. (koordinatzaileak), *Criminalización racista de los migrantes en Europa*, Comares, Granada, 2010, 272-273. orr.

<sup>78</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *Política*, *op.cit.*, 88-89. orr. eta BARBERO GONZÁLEZ, I., *Las transformaciones*, *op.cit.*, 14-15. orr.

<sup>79</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *El gobierno*, *op.cit.*, 126. orr.

<sup>80</sup> BARBERO GONZÁLEZ, I., *Las transformaciones*, *op.cit.* 15. orr.

Modu honetan, etorkinaren estatutu juridikoa osatzen duten zenbait elementuk bere bazterkeria potentziala betikotzen dute, bestetasuna-legezkontrakotasuna-kriminalitatea nahastea eraginez<sup>81</sup> “*se le trató como a un criminal. Aporreaban la puerta con fuerza, todos los vecinos mirando, muchos policías, fue horrible. No puedo quitármelo de la cabeza*”<sup>82</sup>. Elementu horiek, eraikuntza sozial zein juridikotik eratortzen dira. Batetik, imaginario kolektiboak, diskurtso politiko eta mediatikoez josirik, etorkinei ezaugarri jakin batzuk esleitzen dizkie. Bestetik, immigrazio eta atzerritarrei buruzko arauak dira irregulartasuna eta erregulartasunaren arteko lerroa finkatzen dutenak<sup>83</sup>. Hala, egoera irregularrean aurkitzen den etorkina legezkontrakotasun egoera iraunkor batean kokatzen da, kriminalitatetik gertu dagoen eremu ilun batean; lehentasunezko kategoria arriskutsu bilakatzeko faktore erabakigarria<sup>84</sup>.

Arestian aipatu den moduan, Zuzenbide berezi bat sortu da arriskutsua den talde berri batentzako –etorkinak-, helburu bezala bestetasuna eraikitzea eta hau kontrolatzea duena. Zuzenbide honek, eta zehazkiago, espainiako Atzerritarrei buruzko Legeak, bereziki gogorra den eta, etorkina kriminalizatzeaz gainera, legez kontrako egoera iraunkor batean kokatzen duen erregimen juridiko bat aurreikusten du. Zehazkiago, erregimen zigortzailea da erregulartasunetik at kokatzen diren egoerak zein diren finkatzen duena<sup>85</sup>.

Aipatzekoa da, lehenik, lurraldean sartzea ekiditeko ezartzen diren mugen kontrol zorrotza (L.O. 4/2000 25. art. eta hurr.). Kontrol hauei dagokienez, nabarmentzekoa da azken urte hauetan mugaldeko estatuetatik urrundu eta migrazioen jatorrizko estatuetan kokatzeko joera. Bestela esanda, kontrola prozesu migratzailea hasten den lekura mugitzea, edo behintzat, kanpo mugara heldu aurretik interbentzioa aurreratzea. Mugen kanporatzea –esternalizazioa- bezala ezagutzen den fenomeno honen ondorioetako bat, jatorrizko estatuek, sarreraz gainera, irteera irregularra ere kriminalizatzeke hartu duten joera da<sup>86</sup>.

---

<sup>81</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *et.al.*, *La construcción*, *op.cit.*, 277. orr.

<sup>82</sup> Sandraren testigantza.

<sup>83</sup> BARBERO GONZÁLEZ, I., *et.al.*, *La defensa*, *op.cit.*, 24. orr.

<sup>84</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *Política*, *op.cit.*, 133. orr.

<sup>85</sup> BARBERO GONZÁLEZ, I., *et.al.*, *La defensa*, *op.cit.*, 25. orr.

<sup>86</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *et.al.*, *La construcción*, *op.cit.*, 277-278. orr.

Bigarrenik, legekontrakotasun iraunkorraren mehatxua osatzen laguntzen duen beste faktoretako bat, oinarrizko eskubideak eta askatasunak murrizteagatik ezaugarritzen den erregimen juridikoa da, hauen gozamina erregulartasuna lortzearen baldintzapean geratuz<sup>87</sup>.

Azkenik, Atzerritarrei buruzko Legeak etorkin irregularrentzako aurreikusten dituen aparteko neurri penal-administratiboak ditugu, kanporaketa (L.O. 4/2000 57. art. eta hurr., eta 64. art.) eta barneratzea (L.O. 4/2000 61. art. eta hurr.) bezala. Seguruena azken ondorio juridiko hauek esanguratsuak dira legekontrakotasuna eta kriminalitatea nahasten dituen identitate horren diseinuan *“la mayoría de las personas no saben que un extranjero es expulsado por su mera irregularidad, por no tener papeles. Tienen interiorizado que cuando a alguien se le expulsa es porque algo habrá hecho”*<sup>88</sup>. Horretaz gain, ondorio juridiko hauek bereziki gogorak dira eta, bere eduki, zentzu eta larritasuna ikusita, zigor penalak izan beharko lukete, modu honetan, euren izaera administratibotik eratorritzen diren aplikazio, exekuzio eta kontrolerako bermeak areagotuz<sup>89</sup>.

Estrategia aktuarial baten markoan arriskutsuak diren talde zehatzak identifikatzeak, baliabide eskasen ekonomizazioaz haratago, beste funtzio garrantzitsu bat ere betetzen du. “Etsai egokia” bezala kalifikatu denaren identifikazio negatiboak, agerikoak diren funtzioak betetzen ditu kohesio eta artikulazio sozial defizitarioaren planoan<sup>90</sup>. Modu honetan, arrisku konkretu baten eraikuntza sustatzen da –etsaia-segurtasun-gabezia sentimendu guztiak beregan proiektatuz, eta subjektibitatean geratzea eta ondorioz, sistemaren funtzionaltasuna arriskuan jartzea ekidinez<sup>91</sup>. Kasu honetan, eta aipatzen gatozen moduan, etorkinak dira paper hori betetzen dutenak.

Azken finean, aipatutako guztiaren muinean dagoen ideia, politika-kriminalaren ikuskeran eman den eraldaketa da: Etorkinaren estatutu juridikoa arriskugarritasun sozialean kokatzen da, beraz: *“Etorkinak ez ditu delituak egiten: etorkina bera delitu bilakatzen da (...) delitugilea jada ez da subjektu arriskutsua, arriskuak sortzen dituen*

---

<sup>87</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *et.al.*, *La construcción*, *op.cit.*, 279. orr.

<sup>88</sup> Mikelen testigantza.

<sup>89</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *Política*, *op.cit.*, 136-137. orr.

<sup>90</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *El gobierno*, *op.cit.*, 133. orr.

<sup>91</sup> IGLESIAS SKULJ, A., *El cambio en el estatuto de la Ley penal y en los mecanismos de control: flujos migratorios y gubernamentalidad neoliberal*, Comares, Granada, 2011, 191. orr.

*subjektua baizik. Bestela esanda, arriskuaren iturritzat hartzen da*<sup>92</sup>. Ez dugu ahaztu behar ordea, irregularki estatuan sartzea lortu duen etorkina ez dela automatikoki delitugile bat. Kasu gehienetan, jatorrizko estatuan ez dituen baldintza sozialak, politikoak eta ekonomikoak bilatzen dituen pertsona bat izaten jarraitzen du. Bere bitzta proiektua gauzatzeko aukera bat bilatzen du<sup>93</sup> *“el extranjero, el inmigrante, viene con un proyecto, no exactamente se cuela. Sí es verdad que vienen como turistas, cuando en realidad nadie viene como turista, vienen a trabajar, pero tienen su proyecto”*<sup>94</sup>.

Aipatzen gatozena ikusita, ezinbestekoa dirudi eredu gerentzial-aktuarialaren disfuntzioak agerian jartzea. Jarraian, beraz, eredu honek dituen hutsuneak aztertuko ditugu, bai eta oinarrizko hainbat eskubideen ikuspegitik sortzen dituen arazoak.

### **3. Eredu gerentzial-aktuarialaren disfuntzioak: zaintzaren gizartea**

Arriskua ez da kontzeptu neutro edo apolitikoa, ez eta adiera bakarreko ideia. Horregatik, arriskuaren baitan antolatzen diren praktika penalak ez dira beharrendu produktua, erabaki politikoarena baizik<sup>95</sup>. Ondorioz, arrisku tekniken izaera politiko horrek, agerian uzten du, beste behin, ez direla soilik efizientzia edota gogoeta estatistikoetan oinarritzen; erretorika horrek, neutraltasunaren itxura besterik ez die ematen<sup>96</sup>.

Aktuarialismoak ezin ditu ekidin arriskuaren edozein analisisik ziurtasun kontuetan izan litzakeen arazoak. Hain zuzen ere, analisi mota horrek ziurra ez den ezagutza bilatzen du etorkizuneko gertaeretan, hortaz, ezin du gainditu ziurgabetasuna bere osotasunean<sup>97</sup>. Izan ere, analisi horiek, iraganeko datuetatik abiatuta orainaldian erabakiak hartzera bideraturik daude. Bestela esanda, arriskua probabilitatezko hizkuntza da eta, beraz, ziurgabetasunarena<sup>98</sup>.

---

<sup>92</sup> DE GIORGI, A., *Tolerancia Zero. Estrategias y prácticas de control*, Virus, Barcelona, 2005, 93. orr.

<sup>93</sup> MARTÍNEZ DE PISÓN CAVERO, J.M., *op.cit.*, 134. orr.

<sup>94</sup> Mikelen testigantza.

<sup>95</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *El gobierno, op.cit.*, 131. orr.

<sup>96</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *El modelo, op.cit.*, 241. orr.

<sup>97</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *El gobierno, op.cit.*, 131-132. orr.

<sup>98</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *El modelo, op.cit.*, 241. orr.

Eredu gerentzial-aktuarialaren aspektu kezagarrieneratariko bat, delitu bezala hautematen ditugun egitateei erantzuteko moduan aurkitzen da. Metodo aktuarialek delituzko arriskuak izan daitezkeenak identifikatzera heltzeko itzaropena sortzen dute - egiaztatu aurretik-, ordena soziala benetako zaintzaren gizartean eralda dadila lagunduz<sup>99</sup>.

Hala, etorkizuneko arrisku deliktiboak kontuan hartzeak, sistema penalak oraindik deliturik egin ez duten pertsonak kontrolerako lehentasunezko hartzaile bilakatzeko baldintzak sortzen ditu. Modu honetan, aktuarialismoa eta gerentzialismoa ez dira bateragarriak arriskuarekin guztiz kontraesankorra den errugabetasun printzipioarekin<sup>100</sup>. Guzti honek, subjektuaren aurrekarien multzoari ematen zaion garrantziak, etsaiaren zigor Zuzenbidearen eredura hurbiltzen du. Izan ere, ezin du beste modu batera izan, arriskuaren profilak, hein handi batean, subjektuen ezaugarri ontologikoetan oinarritzen baitira, zeinen bitartez pertsona bat ez da arrisksua bihurtzen egiten duenagatik, dena izateagatik baizik, eredu psikosozial edo soziodemografiko jakin batekin bat egiteagatik alegia<sup>101</sup>.

Norabide gerentziala onartu dugu, Harcourt autorearen esanetan, *“kriminala ezagutzeko, kategorizazioak ezartzeko eta etorkizuneko arriskuen aurrean ziurtatzeko desirak bultzaturik”*. Ziurtasuna lortzeko nahiak, teknika aktuarialak bereziki erakargarriak izatea eragin du, zigor justuaren muina den tratu berdintasunaren postulatuarentzako efektu suntsitzaileekin<sup>102</sup>. Aldaketa aktuarialak zigor justuaren irudia desitxuratu du. Arrisku aktuarialaren ebaluazioan oinarrituta zigorra ezartzea justua dela iruditzen zaigu. Onura kolektiboaren ikuspegitik, badu bere zentzua aurreikuspen tresnak erabiliz kalte soziala murriztu nahi izatea -eta, beraz, delituaren kostua areagotu-, arau-hausle bihurtzeko aukera gehienak dituzten horiek aurretiaz identifikatuz<sup>103</sup>.

Disfuntzio guzti hauek ereduaren efikaziari erasateaz gainera, efizientziaren gain ere proiektatzen dira, zeina, aldi berean, eskema gerentzialaren azken helburua den. Ez

---

<sup>99</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *El modelo*, op.cit., 251. orr.

<sup>100</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *El gobierno*, op.cit., 134. orr.

<sup>101</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *El modelo*, op.cit., 249-250. orr.

<sup>102</sup> HARCOURT, B.E., op.cit., 125. orr.

<sup>103</sup> *Ibid.*, 126. orr.

ditu sistemaren kostuak aintzat hartzen, eta ez du sistema penaleko baliabide eskasen erabilera efiziente bat egiten. Orientazio gerentzial-aktuarialari buruz esan denaren aurrean, bere aplikazio praktikoak ez du lortu arriskuaren kontrolerako politika penalak suposatzen dituen gastu nabariak eustea, guztiz neurrigabeak prebentzioaren eremuan lortutako emaitzekin. Kostu hauek ez dira soilik ekonomikoak. Hortik urrun, gerentzialismoak eta aktuarialismoak kalte nabariak sortzen dituzte eskubide eta askatasunen, kohesio sozialaren eta norbanakoaren zein taldearen bizi-errealizaziorako aukeraren materietan<sup>104</sup>.

Guzti hau aztertu ondoren, ezinbestean egin beharreko galdera da ea egokia ote den zigor Zuzenbidea zabaltzea arrisku berri horiei aurre egiteko helburuarekin, edota bere eremu klasikoan jarraitu behar duen, babesa erreklamatzeko eremu berriak zuzenbideko beste adar batzuen esku utziz<sup>105</sup>. Niri dagokidanez, erantzuna garbia da. Ezin daiteke utzi zigor Zuzenbidearen zabalkuntza bat ematen soilik egokiak izan daitezkeen beste tresnekin konpontzen ez dakigulako, edota okerragoa dena, tresna hauekin konpondu nahi ez ditugulako, besterik gabe, ordena penala askozaz ere merkeagoa delako eta iritzi publikoari begira eraginkorragoa delako<sup>106</sup>.

Baina, segurtasunik gabe askatasunik ez dagoen bezala, begi bistakoa dirudi segurtasunik ez duela ezertarako balio askatasunik gabe. Hortaz, zigor Zuzenbidearen gehiegizko zabalkuntza baztertu behar da; bestela esanda, herritarraren askatasun pertsonala eragabeki murrizten duen gehiegizko interbentzionismo punitiboari amaiera eman behar zaio. Izan ere, neurrigabeko interbentzionismo batek larderiako zigor Zuzenbidea izaten amaitu dezake, etsaiaren zigor Zuzenbidera hurbiltzeko arriskuarekin<sup>107</sup>.

---

<sup>104</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *El modelo*, *op.cit.*, 256. orr.

<sup>105</sup> JIMÉNEZ DÍAZ, M.J., *op.cit.*, 4. orr.

<sup>106</sup> *Ibid.*, 20. orr.

<sup>107</sup> *Ibid.*, 21. orr.

#### IV. “BESTEAREKIKO” BELDURRA: GELDITU, SAIHESTU ETA KANPORATU

Espainiako zein europako immigrazioaren kudeaketa eredua, hein handi batean, gure interes ekonomikoetan oinarrituta dago. Ekonomiarentzako baliagarria izan daitekeen hura onartzen dugu, egun gainbeheran dagoen ekonomia bat. Ikuspuntu ekonomiko honetatik onartu ezin dugun edo nahi ez dugun immigrazioa, aipatzen gatozen moduan, mehatxua bailitzan hartzen da, inbasio moduan<sup>108</sup> “*la extranjería se mueve en una continua ambivalencia (...) Por un lado sí, por otro no*”<sup>109</sup>.

Etsaitasunaren sorkuntza, De Lucas autoreak dioen moduan, zenbait kategorien sorkuntza da, zeinaren baitan etsaiaren aurkako Zuzenbideak instantzia ezberdinetan jarduten duen. Lehenik eta behin, “kanpoko etsaia” izango genuke, hau da, etorkin irregularra; bestetik, “atariko etsaia”, kanpoko muga-postu batean aurkitzen dena, edota barrukoan, baina oraindik ere mugetako poliziak kontrolatuta eta, azkenik, “barneko etsaia”, baimenik izan gabe muga igarotzea lortzen duena<sup>110</sup>.

Pertzepzio horretatik aurrera, migrazio politika gaitzespenean oinarritzen da, mugen kontrola eta hauek saihestea lortzen dutenen jazarpena eta immigrazio irregularraren aurkako “borrokari” aurre egiteko tresna juridiko eta baliabide materialen errefortzua azpimarratuz. Borroka hau hiru fasetan ematen dela esan daiteke. Lehena, etorkinak euren estatuetatik ateratzea eta guregana hurbiltzea eragozten. Bigarrena, sarrera galarazten, gure mugak zeharka ditzatela ekidinez. Azkenik, lurraldean sartzea lortuko balute, azken helburua bertatik kanporatzea litzateke, bertatik alde egitera behartu<sup>111</sup>.

Aipaturiko lehen helburuari –atera ez daitezela, hurbil ez daitezela- erantzuten dion europar politika migratzailearen atal nagusietako bat mugen kanporatzea bezala ezagutzen dena da. Aurreko ataletan jada aipatu den moduan, estatuko mugaldeak

---

<sup>108</sup> MARTÍNEZ ESCAMILLA, M., *op.cit.*, 5. orr.

<sup>109</sup> Mikelen testigantza.

<sup>110</sup> DE LUCAS, J., citado en BARBERO GONZÁLEZ, I., *Las transformaciones*, *op.cit.*, 19. orr.

<sup>111</sup> MARTÍNEZ ESCAMILLA, M., *op.cit.*, 5. orr.

aurreratzean datza, mugimendu handiko hirugarren estatuei Europa jomuga duten immigrazioa eusteko eskatuz, presio handi eta laguntza ekonomikoen truke<sup>112</sup>.

Bigarren helburua –sar ez daitezela- gure mugak ixteko saiakerarekin lotu behar da. Egungo politika migratzaileen izaera murriztaileak immigrazioaren kopuru handi bat modu irregularrean bideratzea eragin du, hau da, ezarritako bideetatik at. Bistan denez, ordea, estatuan sartzeko zailtasunak geroz eta handiagoak izan, sarreraren kostua ere handiagoa da, bai eta etorkin irregularrak bere egin behar dituen arriskuak<sup>113</sup>. Alabaina, ez dio ezer onik espero oztopo guztien arren lurraldean sartzea lortzen duen etorkinari. Paperik gabe, bizibidea ateratzeko eskubiderik gabe, eta estatua hura kanporatzeko edozer egiteko prest.

Aipatu berri denaren adibide dira, esaterako, eta jarraian aztertuko dugun moduan, gizarteak indiferentziatik abiatuta eraikitzen dituen muga moralak, bai eta etorkina lokalizaturik izateko ezartzen diren kontrolerako barne mekanismo ezberdinak.

### **1. Indiferentzia eta muga moralen sorrera: Beldurraren, ziurgabetasunaren eta mehatxuaren diskurtsoa**

Aurreko ataletan muga fisiko eta administratiboez mintzatu gara, baina, horietaz gain, badaude munduko biztanleria banatzen duten muga sinbolikoak, errepresentazio sozial partekatuak osatzen dituzten irudi, zirrara, sentimendu, diskurtso eta ekintzen bitartez eraikiak. Muga sinboliko hauek taldearen identitatearen ezaugarriak finkatzen dituzte eta, gatazkan dauden taldeak banatzen dituztenean, muga moralak bihurtzen dira. Azken hauek, gure espazio moralaren barruan gaitzesgarriak izango liratekeen ekintzak onartzen laguntzen digute<sup>114</sup> “*en la medida en que por lo tanto no los vemos en ese mismo plano, aceptamos una serie de cosas que nos terminan por parecer, si no normales, no especialmente disonantes*”<sup>115</sup>. Bestela esanda, indiferentzia, muga moralen eraikuntza prozesu aktibo baten emaitza da. Ez da pasibotasun hutsa, indarkeriazko ariketa baten emaitza baizik, bestearen gizatasun pertzepzioaren

---

<sup>112</sup> MARTÍNEZ ESCAMILLA, M., *op.cit.*, 5. orr.

<sup>113</sup> *Ibid.*, 7. orr.

<sup>114</sup> AGUILAR IDÁÑEZ, M.J. eta BURASCHI, D., “Indiferencia, fronteras morales y estrategias de resistencia”, *Documentación social* (180), 2016, 130-131. orr.

<sup>115</sup> Mikelen testigantza.



ezabatzea<sup>116</sup>. Azken hau da etorkinen aurka hartzen diren neurriak legitimatzeko bidea.

Muga moralak bereziki eraginkorrak dira, izan ere, pertsonen buruetan aurkitzen dira, sozialki partekatuak dira eta, baztertu nahi diren pertsonekin mugitzen dira. Hau da, muga ez dago leku jakin batean kokatuta, baztertutako pertsona muga bilakatzen da. Izan ere, muga hauek finkatzen dituen ez da taldeen arteko ezberdintasuna, muga berak dira ezberdintasunak ezartzen dituztenak. Hau da, muga moralak ez dira existitzen “gure” eta “beraien” artean funtsezko ezberdintasunak daudelako; ezberdintasun hauek, alde aurretiko muga moralen sorkuntzari esker existitzen dira. Aitzitik, muga politiko-administratiboa igarotzeak ez du automatikoki ekartzen pertsona gure eremu moralean sartu eta onartzea<sup>117</sup>. Haratago, muga fisikoetatik geroz eta hurbilago, orduan eta gure muga moraletatik urrunago.

Muga moralek, beraz, distantzia definitzearen funtzioa betetzen dutela esan daiteke, atentzioaren politika mediatikoa modu dinamiko eta eraginkor batean kudeatzea ahalbidetuz. Atentzio honek botere sistema zalantzan jarri gabe eta inolako konpromisorik hartu gabe behatzen eta sumintzen uzten digu<sup>118</sup>. Aitzitik, pertsona hauek gure mugak igarotzea lortzen dutenean, edota gure aldean daudenean, erreferentzia markoa aldatu egiten da, eta arestian aipatu den konpromiso falta hori paradigma sekuritarioan bilakatzen da. Segurtasunaren testuingurua etorkinaren mehatxu izaeraren eraikuntzan oinarritzen da. Arriskutsua da askotan, kriminalitatearen imajinarioaren muinean dagoelako; urriak diren errekursoengatik lehiatzen du eta mehatxu sinbolikoa da balore tradizional eta identitarioen aurka doan heinean “*si es un poco exigente, que además es musulmán, que quiere traer a su familia, que pide cosas, es muy malo. Ese no encaja*”<sup>119</sup>. Hau da, pertsona horiek mehatxu moduan ikusten ditugu, eta euren beharren aurrean “hemengoen” beharrek lehentasuna dutela pentsatzen dugu<sup>120</sup>.

Hipersekuritaziazio honen tendentzia, Barberok dioen moduan, gizarteak

---

<sup>116</sup> AGUILAR IDÁÑEZ, M.J., *et.al.*, *Del racismo, op.cit.*, 32. orr.

<sup>117</sup> *Ibid.*, 32. orr.

<sup>118</sup> *Ibid.*, 33. orr.

<sup>119</sup> Mikelen testigantza.

<sup>120</sup> AGUILAR IDÁÑEZ, M.J., *et.al.*, *Indiferencia*, 136. orr.

beldurraren, ziurgabetasunaren eta mehatxuaren diskurtsoaren bitartez onartzen du<sup>121</sup>. Diskurtso hau arazo konplexuei analisi eta soluzio errazak emateko diskurtso bezala aurkezten da, arazo guztien erantzule den errudunaren figura eraikitzea ahalbidetzen du, lehentasun nazionalean oinarritutako argudioak legitimatzen ditu, eta xenofobia normalizatzen du<sup>122</sup>. Guzti honek, eta migrazio prozesuak beldurraren eta euren izaera mehatxatzailearen gain eraikitzen diren bitartean, etorkinen giza eskubideak urratzen dituzten tresna eta prozeduretan ematen diren irregulartasunen inguruan azalpenak ematearen beharra alboratzea eragiten du, jarraian aztertuko dugun moduan<sup>123</sup>.

## **2. Barne mugen funtzioa eta kontrolerako barne mekanismoak: *profiling* eta kanporaketa espedienteak**

Iparraldera zuzendurik dagoen immigrazio irregularra kudeatzeko helburuarekin edo, hobeto esanda, kontrolatzeko eta aurre egitekoarekin, mekanismo selektibo administratiboak, instrumentalak eta pertsonalak ezartzen dira migrazio-ibilbidearen puntu ezberdinetan<sup>124</sup>. Barne mugen kasuan, mekanismo hauek erreferentzia egiten diete Estatuak bere zaintza-lana egiteko erabiltzen dituen mekanismo fisiko zein juridikoei, ezkutuan Schengen lurraldean sartzea lortu duten edota bertan egoteko baimenaren denbora gainditu duten horiek atxilotu eta kanporatzeko<sup>125</sup>.

Barne muga hauen adierazpena, espainiar Estatuaren kasuan, estatuko atzeritarrei buruzko arauak ezartzen dutenetik eratortzen da bereziki -lehenengotik hasi eta egungorantz-, baina, baita ere, eskubideen zeharkako eskurapena arautzen duten beste arau batzuetatik; polizia kidegoek mugimendu handiko espazioetan ezartzen dituzten kontrolak dira, hala nola, tren eta autobus estazioetan, leku etnikoetan (telefonotegi, meskitak, etab.), bai eta estigmatizaturiko auzoetan edo etorkin kopuru handia biltzen den puntuetan; kanporaketa-aginduak, indibidualak zein kolektiboak; edo Atzeritarren Barneraketa Zentroak. Funtsean, nazionalen eta atzeritarren arteko ezberdintasunak nabarmentzera bideraturik dauden mekanismoak dira<sup>126</sup>.

---

<sup>121</sup> BARBERO GONZÁLEZ, I., *Lectura, op.cit.*, 144. orr.

<sup>122</sup> AGUILAR IDÁÑEZ, M.J., *et.al., Del racismo, op.cit.*, 32-33. orr.

<sup>123</sup> IGLESIAS SKULJ, A., *op.cit.*, 204. orr.

<sup>124</sup> BARBERO GONZÁLEZ, I., *Lectura, op.cit.*, 124. orr.

<sup>125</sup> BARBERO GONZÁLEZ, I., *Las transformaciones, op.cit.*, 57. orr.

<sup>126</sup> BARBERO GONZÁLEZ I., *et.al. La defensa, op.cit.*, 31. orr.

Sistema penala, Brandariz autoreak baieztatzen duen moduan, nazional baten patrioiaren arabera diseinatzen da eta, irudi horretara egokitzen ez diren subjektuek, guztiz diskriminatzailea den selektibotasuna jasaten dute. Selektibotasun horren adibiderik garbiena *profiling*-aren teknika da. Aurreko atalean laburki aipatu den moduan, *profiling*-a potentzialki arriskutsuak kontsideratzen diren subjektuekin erabiltzen den teknika batean formalizatzen da, pentsamendu aktuarialaren hedapenarekin bat etorritik<sup>127</sup>. Etorrinen kasuan, teknika honek *profiling etnikoa*-ren izena hartzen du eta, hauen identifikazioa soilik euren azal kolorean edota itxura fisikoan oinarrituta egitean datza, Herritarren Segurtasuna Babesteko Legeak (4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Herritarren Segurtasuna Babestekoa)<sup>128</sup> pertsona bat identifikatu ahal izateko ezartzen dituen baldintzei erreparatu gabe (LO 4/2015 16. art.). Egoera hau ez da ordea polizia-agente baten arrazakeria edo xenofobia kasu isolatu baten ondorioa; prozesu konplexu eta kezkarriago bat da, testuinguru anglosaxoian partikularraren gaineko *arrazakeria instituzionalaz* hitz egitera heldu den arte<sup>129</sup>.

Nahiz eta, esan bezala, ohikoa den praktika izan, onargarria izatetik urrun dago, izan ere, zalantzarria suertatzen da *profiling*-aren teknikak berdintasun materialaren postulatu gaitzea -Zuzenbidezko Estatuaren oinarritzko printzipioetako bat-. Gainera, delituak saihesteko materiari dagokionez, kontuan izanik *profiling* etnikoak gutxiengo taldeak autoritateetatik aldentzen dituela, poliziaren eginkizunentzako estrategikoki disfuntzionala bihurtzen da. Izan ere, zeregin honek arrakasta izan dezan, beharrezkoa da biztanleriaren partetik lankidetzatza, elkartasuna eta informazioaren hornikuntza egotea<sup>130</sup>.

Azaldu berri den teknika polizial hau ordea, ez da kontrolerako mekanismo bakarra, horretaz gainera, aipamen berezia merezi dute etorkin irregularrak lokalizatuta izateko erabiltzen diren kanporaketa espedienteek.

Kanporaketa immigrazio irregularraren aurka egiteko mekanismo juridiko baten

---

<sup>127</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *El gobierno, op.cit.*, 151 eta 153. orr.

<sup>128</sup> «BOE» núm. 77, de 31 de marzo de 2015, páginas 27216 a 27243.

<sup>129</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *El gobierno, op.cit.*, 152-153. orr.

<sup>130</sup> BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *Sistema penal y control de los migrantes. Gramática del migrante como infractor penal*, Comares, Granada, 2011, 120-121. orr.

adibide izateaz gainera, muga sinbolikoa ere bada, zeina aldi berean, arauturik ez dauden proiektu migratzaileen aurrean disuasio-neurri moduan erabiltzen den, beste behin, herritarren eta atzerritarren arteko bereizketa agerian utziaz<sup>131</sup>. Hala, lurraldetik kanporatua izateko aukera bezala eta irregulartasunetik eratorritako kontzeptu bezala, batetik, ez-herritarraren estatus bat suposatzen du, eskubideen murriztapen bat ekarriz; bestetik, deportazioaren mehatxuak markatutako prekariedade jarraitu batean biziraun behar izatea eragiten du<sup>132</sup>. Zer esanik ez, agindua exekutatzeko lehen saiakera bat egon denean “*Aree tenía mucho miedo, y se fue a vivir a casa de un amigo a Bilbao. Solía venir muy pocas veces a San Sebastián, y cuando lo hacía solía ser los fines de semana por la noche*”<sup>133</sup>.

Argi dago, beraz, badela interes jakin bat atxilotetaren bitartez egoera irregularrean aurkitzen diren etorkinak kontrolatzeko, nahiz eta kanporaketa egikaritzeko aukerak oso murrizak izan. Hala, eta aurreko puntuetan ikusi den moduan, desoreka bat ematen da ezartzen diren kanporaketa aginduen eta exekutaten direnen artean<sup>134</sup>. Aipaturikoa kontuan hartuz eta, arrazionaltasun gerentzial-aktuariala gogoan izanik, helburuetako bat, desoreka horrekin amaitzea izango litzateke. Bestela esanda, arriskutsuenak diren subjektuei erreparatu eta kanporaketarako aurreikusita dauden errekurtsioak azken hauen exekuzioa gauzatzera bideratu.

Zigor arloari dagokionez, kanporaketa zigor baten ezarpenak zigor Zuzenbide demokratikoaren maximetako baten haustura ekartzen du: zigorraren helburua jada ez da birgizarteratzea, ez behintzat etorkin irregularren kasuan. Helburua bikoitza da: herritarren segurtasuna berrezartzeko kriminala urruntzea eta etorkin potentzialentzako zein jada estatuan ezarrita daudenentzako disuasio-neurri bezala jokatzeari<sup>135</sup>.

Exekutatzeko ez diren kanporaketa aginduek planteatzen duten kuestio nagusia kanporatuak izan ez diren pertsona horien egoera da. Atzerritarrei buruzko Lege Organikoak ez du jasotzen erantzun zehatzik, baina bai aurreikusten du estatuko lurraldean irregularki aurkitzen diren atzerritarrek euren egoera erregularizatzeko

---

<sup>131</sup> BARBERO GONZÁLEZ, I., *Lectura, op.cit.*, 141. orr.

<sup>132</sup> BARBERO GONZÁLEZ I., *et.al. La defensa, op.cit.*, 27. orr.

<sup>133</sup> Sandraren testigantza.

<sup>134</sup> BARBERO GONZÁLEZ I., *et.al. La defensa, op.cit.*, 29. orr.

<sup>135</sup> BARBERO GONZÁLEZ, I., *Las transformaciones, op.cit.*, 64-65. orr.

aukera (kanporaketa aginduarekin edo gabe) mekanismo ezberdinen bitartez. Komeni da azpimarratzea ordea aipatutako erregularizazioa ez dela automatikoa, eta beraz, Administrazioaren ahalmen diskrepzionalen markoan kokatzen dela. Baldintza honek adierazten du, nahiz eta legeriak egoera irregularrarekin amaitzeko aukerak aurreikusten dituen, azken honen ez betetzea eragiten duten eta oraindik heldu ez diren kuestio batzuk daudela<sup>136</sup>. Guzti hau, lehenetsuneko premia baten izenean –segurtasuna.

Orain arte azaldutakoak helburu jakin bat izan du: estatuaren eta etorkinen arteko erlazioa zer nolakoa den ikusi eta bertatik eratortzen diren ondorioak aztertzea. Harreman hori ordea ez da egun batetik bestera sortu; prozesu luze baten emaitza da. Prozesu hau, berriz, hainbat zatitan banatzen da, eta lurralde nazionalako puntu bakoitzean bere egitekoa du, azertu dugun moduan. Hala eta ere, hiru atal hauetan zehar ikusi dugunaren azken helburua garbia da, baimenik gabe sartzea lortu duen edota, jada lurraldean egoteko baimenik ez duen etorkina nola edo hala kanporatzea, bai etengabeko presio sozial eta bazterkeriaren ondorioz estatua bere kabuz uztea erabaki duelako, bai bere borondatearen aurka Administrazioak behartuta *“el abogado nos advirtió que esos policías intentarían por todos los medios posibles que la expulsión se llevara a cabo”*<sup>137</sup>.

Atzerritar bati ezartzen zaion kanporaketa agindua exekutatzeko dauden aukeren artean, hurrengo atalean aztergai izango denak bereziki gogorra den prozedura bati erantzuten dio, giza eskubideen ikuspegitik zalantza asko sortzen dituen eta eztabaida askoren iturri izan den prozedura bat hain zuzen. Bestalde, kanporaketan eta zehazki, aipatutako bide honen marko juridikoa aztertuko dugu, bai Estatu mailan, bai Europa mailan.

## **V. KANPORAKETEN MARKO ARAUEMAILEA: 4/2000 LO ETA 2008/115/EE ZUZENTARUA**

Espainiako Atzerritarrei buruzko Legeak aurreikusten duen erregimen zigortzailea eta, zehazki, kanporaketaren zigorra aztertuko dugu jarraian. Kanporaketa

---

<sup>136</sup> BARBERO GONZÁLEZ I., *et.al. La defensa, op.cit.*, 177. orr.

<sup>137</sup> Sandraren testigantza.

bereziki gogorra den ondorio juridikoa da eta, hortaz, Legeko 57. artikulua hertsiki zerrendatzen ditu hura aplikatu ahal izateko supostuak. Horietako bat, eta lan honetan aztergai izango dena, lurraldean modu irregularrean egotearena da, 53.1.a) artikuluan jasoa arau-hauste larri bezala. Beraz, estatuan irregularki aurkitzen den etorkinari dagokion ondorio juridikoa lurraldetik kanporatua izatearena da. Agindu hori ordea, exekutatzera heldu daiteke, edo ez. Egia da artikulua berak -57. art.- isuna ere aurreikusten duela, baina, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2015eko apirilean eman zuen sententziaren ondoren<sup>138</sup>, kanporaketa da aplikatu daitekeen zigor bakarra, eta ezin da isunarengatik ordezkaturia izan.

Zentzu horretan, aipamen egin behar diogu ezinbestez “Itzulera Zuzentzaraua” izenez ezagutzen den Zuzentzarauri (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/115/EE Zuzentzaraua, 2008ko abenduaren 16koa, egoera irregularrean dauden hirugarren herrialdeetako nazionalak itzultzeko estatu kideen arau eta prozedura komunei buruzkoa)<sup>139</sup>. Zuzentzarau honek, atzerritar irregularrak euren jatorrizko estatuetara itzultzeko komunak diren arau eta prozedurak aurreikusten ditu, salbuespen batzuekin. Prozedura horrek pertsona horien giza eskubideak eta duintasuna erabat errespetatu beharko ditu, eta modu gizatiarrean egikaritu beharko da. (2008/115/EE 2. kontsideramendua). Horretaz gainera, erabakiak modu indibidualizatuan eta irizpide objektiboetan oinarrituta hartzeko obligazioa dute estatuak, hau da, egoera irregularraren egitate hutsaz gainera, beste hainbat faktore kontuan hartzeko betebeharra (2008/115/EE 6. kontsideramendua).

Ikus dezakegun moduan, Zuzentzaraua kanporaketaz soilik mintzo da, hau izanik arestian aipaturiko sententzia ematearen arrazoia. Kanporaketa bakarrik aurreikustean, espainiako Atzerritarrei buruzko Lege Organikoak aurreikusten zuenaren aurkakoa zen, azken honek, aipatu bezala, kanporaketa zigorra isunagatik ordezkatzeko aukera jasotzen baitzuen –eta, jarraitzen du, nahiz eta ez aplikatu-. Auzitegiaren esanetan, bi neurriak elkarrekiko baztertzailak dira eta, beraz, Zuzentzarauarekin bateraezinak.

---

<sup>138</sup>Europar Batasuneko Justizia Auzitegia. Samir Zaizoune Kasua (C-38/14). 2015eko apirilaren 23ko Sententzia.

<sup>139</sup>Europar Batasuna. Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala L 348, 2008ko abenduaren 24, 98-107. orr.

Behin hori argituta, kanporaketaren kasuan kokatuko gara. Aurreratzen gatozen moduan, kanporaketa aginduen exekuzioa nahiko eztabaidatsua den gai bat da, eta jarraian datozen lerroetan buru-hauste gehien sortzen dituzten puntuak aztertuko ditugu.

## 1. Kasu zehatza: “Kanporaketa espresen” problematika

Zuzentaraua argia da hirugarren estatuko nazional baten itzulketa erabakia egikaritzeko modu egokia zein den ezartzerako orduan, baina, hala eta guztiz ere, Espainiaren kasuan, egokitasunetik urrun aurkitzen diren moduak erabiltzen dira. Bestela esanda, kanporaketa prozesuak ez dira beti ordenamendu juridikoak finkatzen dituen markoa jarraituz ematen. Legearekin bat etorri daitezkeen arren, ez-ohikoagoak diren prozedura hauetan, prozesu arruntentzako aurreikusten diren bermeak falta dituzten mekanismoak erabiltzen dira. Honen adierazle da, esaterako, behin baino gehiagotan atxilotetaren jakinarazpena SOS Arrazakeria eta Gurutze Gorria bezalako erakundeetara heldu izana senide edota ezagun baten bitartez, hau da, Abokatuen Elkargoko Atzerritartasun Txandan zaintzan dagoen abokatuari behar bezala jakinarazi gabe *“cuando yo hablo con la letrada, me dice que no, que nadie le ha llamado”*<sup>140</sup>. Praktika polizial honek kanporaketa agindu baten exekuzio berezi bati erantzuten dio, “kanporaketa espresa” bezala ezagutzen dena eta, atzerritarra atxilotu, polizia-etxean kustodiatu eta, 72 orduko epea baino lehen kanporaketa egikaritzea helburu duena<sup>141</sup>.

Kanporaketa espresen erreferentzia egiten diote Atzerritarren Barneraketa Zentroetatik gauzatzen diren kanporaketena baino nahiko ezezagunagoa den errealitate bati *“no había manera de que tú supieras que se estaba ejecutando una expulsión”*<sup>142</sup>. Alabaina, ezjakintasun honek ez du bat egiten euren garrantziarekin, egun, polizia-etxeetatik barneraketa zentroetatik baino kanporaketa askoz ere gehiago gauzatzen baitira. Praktika mota honen funtsezko ezaugarri bat barneraketa falta da –etorkina ez da Atzerritarrentzako Barneraketa Zentro batean barneratzen- eta, epaileari horrelako neurri bat eskatzeak eta abokatuaren beharrezko parte-hartzeak ekarri ditzakeen zailtasunak dira hain zuzen ere kanporaketa espresak prozedura erosotzat kalifikatzea

---

<sup>140</sup> Mikelen testigantza.

<sup>141</sup> BARBERO GONZÁLEZ, I., *et.al.*, *La defensa, op.cit.*, 122. orr.

<sup>142</sup> Mikelen testigantza.

eragin duena, zeinak erakargarria egiten duen bere erabilera poliziaren partetik kanporaketa exekuzio jakin batzuk gauzatzeko<sup>143</sup>.

Kanporaketa aginduak egikaritzeko praktikarik ohikoena bihurtu da, eta hala ere, gutxien ezagutzen dena *“las ejecuciones de las expulsiones se estaban llevando a cabo con total desconocimiento de todo el mundo”*<sup>144</sup>. Edozein kasutan, praktika honen giza eragina izugarria eta eztaba daezina da. Pertsona bat bere etxetik atera daiteke eta, epe oso laburretan, hegazkin batean sartu eta euren jatorrizko estatuetara itzultzen dituzte, defendatzeko denborarik utzi gabe, familiaz edo lagunei agur esateko astirik gabe *“Aree cogió sus cosas y bajó llorando. Cuando bajó le metieron al coche y se lo llevaron, hasta hoy. (...) dos días después, me llamó desde Nigeria”*<sup>145</sup>.

Kanporaketa espresak exekutatzen moduak zalantza asko sortzen ditu. Zuzenbideak bermatu eta errespetatu behar dituen eskubide eta printzipioen ikuspegitik. Esaterako, abokatuaren laguntza izateko eskubidea, laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea, proportzionaltasun printzipioa, etab. Gure kasuan ordea, bereziki polemikoa den eta eztabaida asko eragin dituen kuestio bati helduko diogu. Arestian aipaturiko zalantzek izugarrizko garrantzia dute, baina, esan daiteke, egun iritzi onartua dela egoera horretan aurkitzen den pertsona atxilotua dagoela eta, beraz, atxilotuaren estatusari dagozkion bermeak aitortu behar zaizkiola, nahiz eta kanporaketa aginduaren egikaritzea egintza administratibo baten exekuzioaren eremuan gauzatu (4/2000 LO 64.1. art.) *“una persona que está en una comisaría está detenida. No está por propia voluntad. Si está detenida, detención y asistencia letrada están unidos. Lo uno es consecuencia de lo otro”*<sup>146</sup>.

Kanporaketa aginduak nahitaez exekutatu daitezkeen egintza administratiboak dira. Egintza administratiboaren nahitaezko exekuzioak aurretiazko prozedurazko betekizunak errespetatu behar ditu, esaterako, bere nahitaezko exekuzioaren jatorria akordatzen duen egintza administratibo espezifiko baten hartzea, eta proportzionaltasun printzipioa kontuan izanik exekuzioa gauzatzeko biderik egokiena hautatzea. Hortaz, Estatuko Administrazio Orokorrak, kanporaketa agindu bat nahitaez exekutatu ahal

---

<sup>143</sup> BARBERO GONZÁLEZ, I., *et.al.*, *La defensa, op.cit.*, 124. orr.

<sup>144</sup> Mikelen testigantza.

<sup>145</sup> Sandraren testigantza.

<sup>146</sup> Mikelen testigantza.



izateko, beharrezkoa da aurretiaz nahitaezko exekuzio hau akordatzen duen egintza administratibo bat eman izana (kanporaketa aginduarekiko independentea eta ondorengoa), atxiloketa eta askatasun-gabetzea baino egokiagoa den beste exekuzio bide arinago baten existentzia falta justifikatzen duena<sup>147</sup>.

Kanporaketa aginduak exekutatzeko modu honen oinarri juridikoa 4/2000 LO Atzerritarrei buruzko Legeko 64. artikuluan aurkitzen da. Baina, gauza bat da Estatuko Administrazio Orokorrek kanporaketa aginduen nahitaezko exekuziorako mekanismo hori erabili ahal izatea eta, beste bat guztiz ezberdina, mekanismo horrek automatismo hutsez jardutea *“hacia poco había tenido un hijo con su pareja, estaban haciendo los trámites de pareja de hecho para él poder tramitar una tarjeta de familiar de comunitario. Pero, se lo llevan a Marruecos”*<sup>148</sup>.

Kanporaketa aginduen nahitaezko exekuzioaz mintzo garenean egintza administratiboen nahitaezko exekuzioaren eremuan kokatzen gara eta, beraz, atzerritartasunaren materiako legediaren aurreikuspenak egintza administratiboen nahitaezko exekuzioaren erregimen orokorrek osatu behar dira<sup>149</sup> (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena)<sup>150</sup>. Labur esanda, Administrazioak duen ahalmen honen egikaritzea, hura eratzen duten betekizun eta berme guztien betetze hertsiarekin gauzatu behar da.

Zentzu honetan, 39/2015 Legeko 97. artikuluan aurreikusten dena nabarmendu behar da. Artikulu horren lehenengo puntuak exekuzioaren oinarri juridikoa izango den aurretiazko ebazpen jakina ematea galdatzen du. Beraz, ebazpen hori ematen ez bada, nahitaezko exekuzioari oinarri juridikoa faltako zaio, exekuzioa baliogabetuz. Bestalde, bigarren puntuak, Administrazioari behartzen dio partikular interesdunari administrazio-jarduketa baimentzen duen ebazpena jakinaraztera. Hurrengo artikulua -100. art.-, nahitaezko betearazpenerako bitarteko ezberdinak biltzen ditu. Gure kasua, kanporaketa aginduen exekuzioa alegia, pertsonak behartzearekin alderatu behar da, 100.1.d)

---

<sup>147</sup> NAVARRO MANICH, J.A., “La ejecución forzosa de las órdenes de expulsión mediante detención, privación de libertad e inmediata expulsión: la necesaria habilitación previa mediante acto administrativo dictado de conformidad con el principio de proporcionalidad”, MARTÍNEZ ESCAMILLA, M. (koordinatzailea), *Detención, internamiento y expulsión administrativa de personas extranjeras*, Consejo General del Poder Judicial, Madrid, 2015, 139. orr.

<sup>148</sup> Mikelen testigantza.

<sup>149</sup> NAVARRO MANICH, J.A., *op.cit.*, 140. orr.

<sup>150</sup> «BOE» núm. 236, de 2 de octubre de 2015, páginas 89343 a 89410

artikuluari jaso. Ondorioz, ezin izango da kanporaketa agindu bat exekutatu, exekuzio hori baimentzen duen egintza administratibo zehatza adostu gabe.

Esan bezala, beharrezkoa da administrazio-arauak Atzerritarrei buruzko Legeko aurreikuspenekin batera ematea. Praktikan, ordea, Administrazioak ez du aipaturiko obligaziorik betetzen kanporaketa aginduak exekutatzeko orduan:

*“Cuando regresé a casa me encontré con un montón de policías en el portal (...) le pregunté a uno de los policías qué es lo que pasaba, y me dijo que tenían orden de coger a Aree y llevárselo, para expulsarle del país”<sup>151</sup>.*

Dena den, eta nahiz eta praktika administratiboak betekizun hau alde batera utzi, atzerritartasunaren materian dagoen araudiak, ez du ezartzen, ez eta justifikatzen ere, egintza administratiboaren exekuzioaren erregimen orokorra kanporaketa aginduen kasuan aplikagarria ez denik. Izaera orokorrean ezarritako berme bat da, eta lurraldetik kanporatuak izango diren kasuan ez dago betekizun hau alde batera uztea ahalbidetzen duen elementu normatibo edo interpretatzailearik. Ondorioz, Estatuko Administrazio Orokorra, jada argi utzi den moduan, 39/2015 Legean aurreikusten diren egintza administratiboaren nahitaezko exekuzioaren inguruko araei loturik dago.

Nahitaezko exekuzioaren oinarri juridiko bezala adostu behar den ebazpen zehatzaz gainera, 39/2015 Legeko 99. artikulua aurretiazko ohartarazpena galdatzen du nahitaezko exekuziora igaro ahal izateko. Aipaturikoa, beraz, Estatuko Administrazio Orokorrak bete behar duen beste betekizunetako bat da, kanporaketa aginduaren nahitaezko exekuziorako neurri zehatzak hartu aurretikoa izan behar duena. Era berean, egintza administratibo zehatz horren existentziak, egintzaren hartzaileari Administrazioak adostu nahi duen nahitaezko exekuzioaren aurka defendatzeko aukera ematen dio<sup>152</sup>.

Hain zuzen ere, egintza administratibo zehatza adosteko obligazioa, Administrazioak kasu konkretuaren inguruabarren azterketa zein nahitaezko exekuziorako aurreikusten diren neurri ezberdinen arteko ponderazioa egiteko

---

<sup>151</sup> Sandraren testigantza.

<sup>152</sup> NAVARRO MANICH, J.A., *op.cit.*, 146. orr.

egintzaren hartzaileak duen eskubidea da. Nahiz eta kanporaketa aginduta egon, posible da nahitaezko exekuzioari aurre egiteko arrazoiak existitzea, eta zaila izan daiteke kanporaketa baten egikaritzea saihestea Administrazioak jada atzerritarra atxilotu duenean<sup>153</sup>. Sandrak mirari moduan kontatzen du Mikelek exekuzioa gelditu izana: *“Aree ya se encontraba en Madrid, en el vuelo con destino Nigeria. Estaba desesperada cuando el abogado me llamó para decirme que había conseguido detener la ejecución de la expulsión. Consiguió que el avión no despegara”*<sup>154</sup>.

Arestian aipaturiko supostu horiek Atzerritarrei buruzko Legean (4/2000 LO), bere Erregelamenduan (557/2011 ED) eta Itzulera Zuzentarauan (2008/115/EE) aurreikusten dira, eta hauetakoren bat ematen denean, ezin izango da kanporaketa agindua exekutatu<sup>155</sup>. Honek agerian uzten du ezin dela egon automatismo bat kanporaketa agindu baten existentziaren eta bere nahitaezko exekuzioaren artean.

Kanporaketa aginduen exekuzio prozesuan abokatuaren laguntza izateko zailtasunekin erlazionatuta dauden kexak aztertu ondoren egiaztatu da, badela esanguratsua den kasu kopuru bat non kaltetuaren inguruabarrak, ebazpenaren exekuzioaren unean, bere garaian kanporaketa ebazpen bat ezartzea eragin zutenen ezberdinak diren. Inguruabarren aldaketa hau (haurren jaiotza, bikote erlazioa espainiar batekin, etab.) aintzat hartu beharra dago, herritar hauek euren eskubide eta interes legitimoen egikaritzean benetako babes judiziala izatea ahalbidetzen duten bermeak ezartzeko helburuarekin, modu honetan, defentsa-gabezia ekiditeko<sup>156</sup>.

Interpretazio ildo bera jarraitzen du Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2018ko maiatzaren 8an eman berri duen sententzian<sup>157</sup>. Auzitegiari jarraiki, 2008/115/EE Zuzentaraueko 5. artikulua, batetik, estatu kideak behartzen ditu behar den moduan aintzat hartzera hirugarren herrialde bateko nazional baten umearen interes gorena, familia-bizitza eta osasun egoera, eta, bestetik, ez itzultzeko printzipioa

---

<sup>153</sup> NAVARRO MANICH, J.A., *op.cit.*, 149. orr.

<sup>154</sup> Sandraren testigantza.

<sup>155</sup> Honen adibide izan daitezke esaterako: haurdunaldia, eskolatutako umeen kontu egotea, gaixotasun larriak, preskripzio epea, etab.

<sup>156</sup> Defensor del Pueblo, *Informe anual*, 2014, 221-222. orr. Recuperado de: <https://www.defensordelpueblo.es/wp-content/uploads/2015/06/Informe2014.pdf>

<sup>157</sup> Europar Batasuneko Justizia Auzitegia. K.A. eta beste batzuk kasua (C-82/16). 2018ko maiatzaren 8ko Sententzia.

errespetatzera. Bertatik ondorioztatzen dena da, autoritate nazional eskudunek itzultzeko erabaki bat hartu behar dutenean, aipatutako artikulua ezartzen dizkien obligazioekin bete beharko dutela legearen-aginduz eta interesatuari entzun puntu horien inguruan. Era berean, interesatuak autoritateekin kolaboratu beharko du bere egoera pertsonal eta familiarren inguruko informazioa emateko, batez ere, itzultzeko erabakia ez hartzea justifikatzeko baliagarria izan daitekeen hura.

Hortaz, eta Auzitegiaren baieztapenez, 2008/115/EE Zuzentzaueko 5. artikulua estatu kide batek itzulketa erabaki bat interesatuak erabaki horri kontra egiteko alegatu dituen familia inguruabar eta pertsonalak kontuan hartu gabe akordatzaren praktikaren aurkakoa da, baita hirugarren estatuko nazional horren aurka lurraldean sartzeko debekua daraman itzulketa erabaki bat diktatu den kasuan ere. Bistan da, beraz, kanporaketa agindua exekutatu aurretik kasua berrikusteko obligazioa dagoela.

Berrikuspenaren inguruan badaude alde batera utzi ezin ditugun pare bat gai. Lehen, barneraketaren kautelazko neurriarekin loturan; bigarrena, berriz, atzerritartasunaren materiako erregimen komunitarioaren xedapenekin.

Kasua berrikustea beharrezkoa da pertsona bat Atzerritarren Barneraketa Zentro batean sartu ahal izateko, baina, ez ordea, kanporaketaren exekuzioa zuzenean gauzatzeko. Neurriaren gogortasuna dela eta, bere eskaerak epailea behartzen du kasu zehatzeko inguruabarrak –pertsonalak eta objektiboak- aztertzea, eta berrikuspen hau aukera bat izan daiteke kanporaketa agindua baliogabetzeko. Bestela esanda, kasuko inguruabarrak aztertu ondoren kanporaketa exekutatzea ez dela egokia zehaztu dezake. Edonola ere, aukera hau oso urria da, eta beharrezkoa da kontrol-politika migratzaileen eta konstituzio-bermeen eta giza eskubideen babesaren arteko oreka aurkitzea. Gure ordenamenduak eskaintzen dituen bermeek polizia-etxeetatik egiten diren kanporaketetara ere zabaldu behar dute<sup>158</sup>.

Bestetik, ez dago esan beharrik, Europar Batasuneko biztanleek eta hauen senideek duten erregimena eta bertako xedapenek (240/2007 Errege Dekretua, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarrak eta Europako Esparru Ekonomikorako

---

<sup>158</sup> TRILLO FIGUEROA, J.M., “Expulsiones exprés”: garantías en una práctica extendida”, MARTÍNEZ ESCAMILLA, M. (koordinatzailea), *Detención, op.cit.*, 158. orr.

Akordioan zehaztutako beste estatu batzuetako herritarrak Espainian sartu, aske ibili eta bizitzeari buruzkoa)<sup>159</sup>, Atzerritarrei buruzko Legeko eta honen Erregelamendukoek baino berme gehiago jasotzen dituztela. Kasu honetan, eta nahiz eta kanporaketa zigor moduan aurreikusi, ondorio juridiko hau aplikatzeko supostuak ordena publikoan eta segurtasunean oinarritzen dira, eta ez dokumentazioaren iraungipenean edota irregulartasunaren egoera soilean. Aipatutakoaz gainera, bada benetan garrantzitsua den ezberdintasun bat: kasuaren berrikuspena. 15. artikuluari erreparatuz, kanporaketa agindu bat ezartzeko kontuan hartuko dira interesatuak Espainian bizitzen damakien denbora, bai eta integrazio sozial eta kulturala, adina, egoera ekonomikoa eta familiarra, eta bere jatorrizko estatuarekin duen loturaren garrantzia.

Bestalde, eta 16. artikuluan xedatutakoari jarraiki, kanporaketa agindua ezarri eta handik bi urte baino gehiagora kanporaketa ebazpena exekutatu behar den kasuetan, autoritate eskudunek kanporaketa erabakia adostu ondoren gertatutako inguruabarren aldaketak aintzat hartuko dituzte.

Egia da, aipatu den bezala, erregimen honek berme eta abantaila gehiago eskaintzen dizkiela Europar Batasuneko herritarrak direnei, baina, kanporaketa bereziki gogorra den ondorio juridikoa izanik, erregimen honen xedapenak, arlo honetan behintzat, hirugarren estatueto herritarrengana ere zabaldu beharko lukete *“el régimen sancionador en términos administrativos tiene su analogía con el Derecho penal en cuanto a la aplicación de los principios, y estos principios son igualmente aplicables a unos y a otros”*<sup>160</sup>.

Egitate horrek, beste behin, etorkinaren –hirugarren estatueto nazionalen- eraikuntza soziala aipatzera garamatza. Europar Batasuneko kide direnek bertatik mugitzeko askatasuna dutenez, nazionalak balira bezala ikusten ditugu, eta ez gara mehatxatuak sentitzen gure lurraldera etortzen direnean. Normalean, hirugarren estatu horiek delinkuentziarekin lotzen ditugu, kriminalitate tasa altuekin eta, ondorioz, gugandik urrun nahi ditugu. Arraroa badirudi ere, inbasioaren sentsazioa soilik atzerritar mota hauekin sortzen zaigu, estatuak eta erakundeek beldurraren diskurtsoan hauek bakarrik barneratzen dituztelako. Hala, atzerritarren eta, ondorioz, eskubideen arteko

---

<sup>159</sup> «BOE» núm. 51, de 28 de febrero de 2007, páginas 8558 a 8566.

<sup>160</sup> Mikelen testigantza.

kategoriak sortzen dira, oinarri bakarra pertsona bakoitzaren jaioterria izanik. Ezin ahaztu dezakegu, ordea, kanporaketa erregimen zigortzailearen parte dela. Erregimen zigortzaileak garantista izan behar du, hau da, guztioi aplikagarri izan behar zaizkigu berme, eskubide eta printzipio berberak. Ezin onartu daiteke jardun selektiborik “*no hay garantías de primera y de segunda, porque no hay sancionados de primera y de segunda*”<sup>161</sup>.

Beraz, eta orain arte azaldutakoa laburtzeko, gai hau behin betikoz isteko dagoen beharrezkotasuna azpimarratu nahiko nuke. Administrazioak egun duen jarrera honekin norbanakoaren oinarritzko eskubideak alboratzen ari gara, eta etorkinak ez ditugu pertsonak bezala tratatzen. Administrazioak izugarritzko indarra hartzen du zigor Zuzenbidearekin antza gehiago duen erregimen zigortzaile batean, baina, azken honek galdatzen dituen printzipioei erreparatu gabe. Haratago, Administrazioen Prozedura Legean bertan finkatzen dena ere albo batera uzten du. Kanporaketa agindua exekutatzea egintza administratibo baten exekuzioa baino askoz ere gehiago da. Ondorioak izugarriak dira, eta kasu askotan, erreparaezinak.

*“Después de la expulsión cambiaron muchas cosas en mi vida. (...) A las noches no podía dormir, la cabeza me daba mil vueltas (...) Sobrevivo gracias a las ayudas que me da el ayuntamiento (...) Aree me ha dejado, no se preocupa de nuestros hijos, ni tampoco me ayuda económicamente. He perdido el contacto con él (...) Se volvió a casar, se desentendió de mí y de mis hijos”*<sup>162</sup>.

## VI. ONDORIOAK

1. Migrazio-fluxuak globalizazioaren emaitza arruntzat hartu beharrean eta, ondorioz, egoera berri honi egokitzeko onarpen politika aproposak sortu beharrean, estatu hauetako gobernuak geroz eta handiagoak diren mugak eraikitzea erabaki dute, euren herritarrak inbaditzaileetatik –etorkin irregularretatik- babesteko. Errealitatean ordea, muga fisikoak edo moralak izan, zeharkaezinak izatetik urrun daude: behin eta berriz atzerritar “zitalek” muga horiek gainditzea lortzen dute.

---

<sup>161</sup> Mikelen testigantza.

<sup>162</sup> Sandraren testigantza.

Aipaturikoa hainbat arrazoiren ondorio da. Lehenik, zaila da mugak guztiz ixtea irregularki sartu nahi duten horientzako, globalizazioa ezaugarritzen duen zirkulatzeko askatasuna kolokan jarri gabe. Era berean, ez dago argi, nahiz eta diskurtso gehienek oinarria izan, helburua etorkin guztiak mugetatik kanpo mantentzea denik. Jakina denez, herrialde garatuak etorkin hauen beharra du merkea eta ustiagarria den lanez arduratzeko.

2. Krisi ekonomikoak markatutako gizarte honetan, ziurgabetasunaren manipulazioak botereak bere nagusitasuna indartzea ahalbidetzen du, erantzunik eman ezin diren arazoak errudun izango den figura bat sortzearen bitartez: gure mugak igaro nahi dituzten horiek.

Delitugileekin, infiltratutako etsaiekin edota terroristekin alderatzeak bidea ixteko hartzen diren neurriak justifikatzeko balio du, legaltasuna desitxuratzearen kostura bada ere. Ezin dugu ahaztu migrazio politika zorrotz bat mantentzeak inplikatzeko duen kostua. Baina, gastu ekonomikoak haratago, garrantzitsuena eta seguruenik gutxien ezagutzen dena aipatu nahi nuke: mugak ixtearen giza kostua. Herritarrek gaitzetsi egin behar dute lurraldean sartzerako orduan etorkinek bizi duten indarkeria, bai eta bidegabeko kanporatzeak, itzulketak eta antzeko neurriak.

3. Europar Batasunaren migrazio-erregimena normalizatu behar da, eta errealitatera egokitzen diren politika errealistagoak eta egokiagoak sortu; egun indarrean daudenak baino kalte gutxiago eragingo dituzten eta Zuzenbidezko Estatuaren berezko bermeak errespetatuko dituzten politikak. Hau lortzeko ordea beharrezkoa da herritarrek immigrazioarekiko pertzepzio positiboa izatea, edota behintzat, honen aurkako jarrerak murriztea. Hartzaile diren herrialdeetan etorkinen integrazioa bultzatu eta erraztu behar da.

4. Lehentasuna eman zaio kontrol zein immigrazio politiken polizia dimentsioari, herritarren segurtasun eskarien izenean, *ultima ratio* den –edo, izan beharko lukeen– zigor Zuzenbideari eta bere estrategia eta neurriei ateak zabalduz. Ezin da onartu espainiar gobernuak migrazio politikak babesetik abiatuta eraikitzea eta, ondorio bezala, arrisku talde berri batentzako *ad hoc* araudi bat sortu izana. Honek

etsaiaren zigor Zuzenbidearen eremuan kokatzen gaitu. Atzerritarren kanporaketa zigorra adibide ezin hobea da.

5. Kanporaketa zigorraren exekuzioak, eta bereziki, kanporaketa espresaren praktikak hutsune asko ditu Zuzenbide administratiboaren ikuspegitik. Pertsona bat kanporatua izatea bereziki gogorra den neurria da, eta etorkin bati gerta lekiokoen gauzarik okerrenea dela esatera ere ausartzen naiz.

Kontuzko gaia izanik, kontrol judizial handiagoa behar da, oinarrizko eskubideen azken eta beharrezko berme bezala, eta administrazioaren jardunaren aurrean legaltasun bezala jardungo duen kontrol bat.

Administrazioak ezin du automatismo hutsez jardun. Beharrezkoa da kanporaketa agindua ezarri zen unetik hau exekutatzera bitartean eman diren inguruabarren aldaketak aintzat hartzea, posible baita exekuzioaren unean eta aldaketa horien ondorioz kanporaketa guztiz desagokia eta neurrigabekoa izatea. Lan honetan aztertu den kasua adibide ezin hobea da.

Erregimen zigortzaileak norbanako guztientzako berbera izan behar du, bai printzipio bai bermeen aldetik, eta ezin da kategorizazio bat egin hirugarren estatuko nazionalen eta Europar Batasuneko herritarrak direnen artean.

6. Azkenik, immigrazioarekiko begirada erreal bat izan behar dugu, egun indarrean dauden politikak pentsamendu kritiko baten ikuspegitik zalantzan jartzea ahalbidetuko digun begirada bat. Bizi dugun errealitatearen noranzko berean joan beharra daukagu, ez kontrakoan.



## BIBLIOGRAFIA

AGUILAR IDÁÑEZ, M.J. eta BURASCHI, D., “Del racismo y la construcción de fronteras morales a la resistencia y el cambio social: la sociedad civil frente a las migraciones forzosas”, *Servicios Sociales y Política Social* (111), 2016, 29-44.

AGUILAR IDÁÑEZ, M.J. eta BURASCHI, D., “El racismo institucional en las políticas e intervenciones sociales dirigidas a inmigrantes y algunas propuestas prácticas para evitarlo”, *Documentación social* (162), 2011, 139-166.

AGUILAR IDÁÑEZ, M.J. eta BURASCHI, D., “Indiferencia, fronteras morales y estrategias de resistencia”, *Documentación social* (180), 2016, 127-147.

AGUILAR IDÁÑEZ, M.J. eta BURASCHI, D., *Prejuicio, etnocentrismo y racismo institucional en las políticas sociales y los profesionales de los servicios sociales que trabajan con personas migrantes*. Conferencia llevada a cabo en el VII Congreso Migraciones Internacionales en España, Bilbao, 2012.

ARCOS RAMÍREZ, F. (argitatzaillea), TURÉGANO MANSILLA, I., VELASCO ARROYO, J.C., DORADO PORRAS, J., ANSUÁTEGI ROIG, J., AÑÓN ROIG, M.J., IGLESIAS VILA, M., *La justicia y los derechos en un mundo globalizado*, Dykinson, Madrid, 2016.

BARBERO GONZÁLEZ, I., “Lectura contemporánea del régimen de frontera en Europa: un coste inhumano”, *Revista de Derecho Migratorio y Extranjería* (46), 2017, 121-144.

BARBERO GONZÁLEZ, I. eta BLANCO FDEZ. DE VALDERRAMA, C., ARRESE IRIONDO, M.N., GONZÁLEZ MURÚA, A.R., *La defensa de los derechos fundamentales ante la detención, internamiento y expulsión de personas extranjeras. El caso de la Comunidad Autónoma Vasca*. Tirant lo Blanch, Valencia, 2017.

BARBERO GONZÁLEZ, I. eta GONZÁLEZ, A.R. “Estado, migraciones y derecho(s) en la era de la globalización”, *Nómadas. Revista Crítica de Ciencias Sociales y Jurídicas*, Vol. 21(1), 2009.

BARBERO GONZÁLEZ, I., *Las transformaciones del Estado y del Derecho ante el control de la inmigración*, Ikuspegi. Observatorio Vasco de Inmigración, Zarautz, 2010.  
BAZZACO, E., “La inmigración en España racismo institucional y racismo social”. *Papeles de relaciones ecosociales y cambio global* (103), 2008, 75-84.

BLANCO FDEZ. DE VALDERRAMA, C. (argitatzaillea), *Migrazioak. Mugikortasun berriak mugitzen ari den munduan*, Ikuspegi. Immigrazioaren Euskal Behatokia, Zarautz, 2006.

BRANDARIZ GARCÍA, J.A., “Funcionalidad de la construcción de los migrantes como sujetos de riesgo en el sistema penal español. Derecho Penal del Enemigo, gestión de la exclusión e inclusión subordinada”, *Constitución, derechos fundamentales y sistema penal*, Vol. 1, 2009, 287-306.

BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *El gobierno de la penalidad. La complejidad de la Política criminal contemporánea*, Dykinson, Madrid, 2014.

BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *El modelo gerencial-actuarial de penalidad. Eficiencia, riesgo y sistema penal*, Dykinson, Madrid, 2016.

BRANDARIZ GARCÍA, J.A., FERNÁNDEZ BESSA, C. “Transformaciones de la penalidad migratoria en el contexto de la crisis económica. El giro gerencial del dispositivo de deportación”, *Indret: Revista para el Análisis del Derecho* (4), 2016.

BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *Política criminal de la exclusión. El sistema penal en tiempo de declive del Estado social y de crisis del Estado-nación*, Comares, Granada, 2007.

BRANDARIZ GARCÍA, J.A., *Sistema penal y control de los migrantes. Gramática del migrante como infractor penal*, Comares, Granada, 2011.

CORDERO LOZANO, C., *Expulsión, devolución y retorno de extranjeros*, Bosch, Barcelona, 2011.

DE GIORGI, A., *Tolerancia Zero. Estrategias y prácticas de control*, Virus, Barcelona, 2005.

DE LUCAS, J., *El Periódico*, 2002. Recuperado de: <https://www.elperiodico.com/es/sociedad/20150911/al-inmigrante-se-le-regatea-la-condicion-de-ser-humano-4503663>

DE LUCAS, J., TORRES, D., *Inmigrantes: ¿cómo los tenemos? Algunos desafíos y (malas) respuestas*, Talasa, Madrid, 2002.

DEFENSOR DEL PUEBLO, *Informe anual*, Madrid, 2014. Recuperado de: <https://www.defensordelpueblo.es/wp-content/uploads/2015/06/Informe2014.pdf>

DELGADO, M., “La producción legal de ilegales”, *El País*, 2000. Recuperado de: [https://elpais.com/diario/2000/10/16/opinion/971647210\\_850215.html](https://elpais.com/diario/2000/10/16/opinion/971647210_850215.html)

FALLADA, J.R., *Las políticas del racismo. Métodos e ideologías*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2016.

GARCÍA AÑÓN, J., RUIZ SANZ, M. (argitaztaileak), *Discriminación racial y étnica. Balance de la aplicación y eficacia de las garantías normativas*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2013.

GÓMEZ IZQUIERDO, J., “La conceptualización del racismo en Michel Foucault”, *Interdisciplina*, Vol. 2(4), 2014, 121-142.

HARCOURT, B.E., *Política criminal y gestión de riesgos. Genealogía y crítica*, Ad hoc, Buenos Aires, 2013.

IGLESIAS SKULJ, A., *El cambio en el estatuto de la Ley penal y en los mecanismos de control: flujos migratorios y gubernamentalidad neoliberal*, Comares, Granada, 2011.

JIMÉNEZ DÍAZ, M.J., “Sociedad del riesgo e intervención penal”, *Revista electrónica de ciencia penal y criminología* (16), 2014.

MARTÍNEZ DE PISÓN CAVERO, J.M., “La (no) política de inmigración y el estado de derecho”, *Inmigración y ciudadanía: perspectivas sociojurídicas*, 2003, 129-144.

MARTÍNEZ ESCAMILLA, M. (koordinatzailea), SÁNCHEZ TOMÁS, J.M., RELAÑO PASTOR, E., NAVARRO MANICH, J.A., TRILLO FIGUEROA, J.M., TOMÉ GARCÍA, J.A., ROSELL AGUILAR, M.V., FERNÁNDEZ OLALLA, P., MANZANEDO, C., GARCÍA DE DIOS, R., VILLAHOZ RODRÍGUEZ, J., RÍOS MARTIN, J., *Detención, internamiento y expulsión administrativa de personas extranjeras*, Consejo General del Poder Judicial, Madrid, 2015.

MARTÍNEZ ESCAMILLA, M., “Inmigración, Derechos Humanos y Política Criminal: ¿Hasta dónde estamos dispuestos a llegar?”, *Indret: Revista para el Análisis del Derecho* (3), 2009.

MENDOZA BUERGO, B., *El Derecho penal en la sociedad del riesgo*, Civitas, Madrid, 2001.

PALLIDA, S., BRANDARIZ GARCÍA, J.A. (zuzendariak), IGLESIAS SKULJ, A., RAMOS VÁZQUE, J.A. (koordinatzaileak), AEBI, M., ALBRECHT, H.J., APARICIO WILHELMI, M., BAZZACO, E., BOSWORTH, M., BRION, F., DELGRANDE, N., DE GIORGI, A., GUILD, M., FERNÁNDEZ BESSA, C., HARCOURT, B., MACCANICO, Y., MANERI, M., MOSCONI, G., MUCCHIELLI, L., NEVANEN, S., RAHOLA, F., RE, L., SIGONA, N., VALLUY, J., *Criminalización racista de los migrantes en Europa*, Comares, Granada, 2010.

PÉREZ MACHÍO, A.I., “Trata de personas: La globalización del delito y su incidencia en la criminalización de la víctima inmigrante irregular a partir de las dinastías actuariales”, *Estudios penales y criminológicos*, Vol. 36, 2016, 371-446.

SOLANAS CORELLA, A. (argitatzalea.), AÑÓN ROIG, M.J., BEDOYA MURIEL, M.H., DE LUCAS MARTÍN, J., DELGADO GODOY, L., GARCÍA ROCA, J., LA SPINA, E., MORA CASTRO, A., RUIZ VIEYTEZ, E.J., *Derechos Humanos, migraciones y diversidad*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2010.

SOS RACISMO. *Informe anual 2009. Sobre el racismo en el Estado español*, Icaria, Barcelona, 2009.

SUSÍN BETRÁN, R., “Inmigración y barreras en la ciudadanía. El miedo al otro y el derecho a la democracia plural”. *Anuario de Filosofía del Derecho* (31), 2015, 227-251.

TRILLO FIGUEROA, J.M., “Expulsiones exprés”: garantías en una práctica extendida”, *Detención, internamiento y expulsión administrativa de personas extranjeras*, Consejo General del Poder Judicial, Madrid, 2015.

### **Jurisprudentzia**

2015eko apirilaren 23ko Sententzia, Subdelegación del Gobierno en Gipuzkoa — Extranjería y Samir Zaizoune, C-38/14, ECLI:EU:C:2015:260

2018ko maiatzaren 8ko Sententzia, K.A. y otros y Belgische Staat, C-82/16, ECLI:EU:C:2018:308

## ERANSKINA 1

### SANDRAREN ELKARRIZKETA

**Hola Sandra. Me llamo Helene y soy alumna de cuarto de Derecho. Estoy analizando como se llevan a cabo las ejecuciones de las órdenes de expulsión, y me gustaría que me contaras por favor tu caso; que es lo que ocurrió, como lo viviste, etc. Tengo entendido que hubo dos intentos para expulsar a tu marido... Cuéntame, cómo fue aquella primera vez, que es lo que ocurrió.**

Todo pasó en septiembre de 2015. Yo estaba trabajando, y Aree me llamó diciendo que la Policía le había retenido el pasaporte. Ese día Aree fue a renovar el DNI de mi hija, pero yo no lo sabía. Le pregunté la razón por la cual le habían retenido el pasaporte, y me contestó que había sido por la orden de expulsión que le incoaron en 2007, en Sevilla. Me quedé muy sorprendida, porque ya habían pasado muchos años desde ese suceso. Cuando me llamo diciendo que la policía le había retenido el pasaporte, le dije que a ver por qué acudió él, que tenía que haber ido yo, ya que tenía los papeles en regla. Me contestó que como yo estaba trabajando, él me quería ayudar. Le pregunté a ver si sabía cuando le iban a devolver el pasaporte, y dijo que la Policía le había dicho que ya le llamarían.

De ahí a dos semanas, le llamaron para ir a recoger el pasaporte a comisaría. Aree acudió con su hija, Praise. Uno de los policías me llamó para decirme que le habían detenido a Aree y que fuese a buscar a mi hija. No me dejaron ver a Aree, ni tampoco ponerme en contacto con él. Intente que uno de los policías me explicara la razón por la cual le habían detenido, pero no me dijo nada claro. Supuse que era por esa orden de expulsión que le incoaron hace años.

**Es una práctica muy habitual por parte de la Brigada de Extranjería el llamar a la persona afectada para que acuda a comisaría por un tema de su interés, y posteriormente detenerle para ejecutar la orden de expulsión.**

Sí. Algo de eso había oído. Sabía que necesitaba un abogado, pero no sabía muy bien dónde acudir. Primero fui a Cruz Roja, pero me dijeron que el sitio a donde tenía que ir era SOS Racismo. Fui a SOS Racismo, les explique mi historia, y me dijeron que me pondrían en contacto con el abogado de SOS.

El abogado hizo varias gestiones y papeleos. No sé muy bien que es lo que hizo exactamente. Lo que sé es que intento, y conseguí, detener la expulsión. Durante ese día llamé varias veces al abogado, para ver que es lo que pasaba, o en que punto nos encontrábamos. Aree ya se encontraba en Madrid, en el vuelo con destino a Nigeria. Estaba desesperada cuando el abogado me llamó para decirme que había conseguido detener la ejecución de la expulsión. Consiguí que el avión no despegara.

Después de eso, unos amigos le prestaron dinero a Aree para que pudiera volver a San Sebastián. Cuando volvió tuvimos una reunión con el abogado, y nos advirtió que esos Policías intentarían por todos los medios posibles que la expulsión se llevara a cabo, por lo que Aree tenía que andar con mucho cuidado, con mucho más que antes. Aree tenía

mucho miedo, y se fue a vivir a casa de un amigo a Bilbao. Solía venir muy pocas veces a San Sebastián, y cuando lo hacía solía ser los fines de semana a la noche.

### **Ahora me gustaría que me contaras el segundo intento de expulsión...**

El segundo intento fue el 16 de octubre de 2015. Cuando vino la policía aquel día por la mañana, él se encontraba en casa. Los niños estaban en el cole, y yo estaba haciendo unos recados. Cuando regrese a casa, me encontré con un montón de policías en el portal. Estaban tocando el timbre de mi casa para conseguir que Aree les abriera la puerta. Le pregunté a uno de los policías que es lo que pasaba, y me dijo que tenían orden de coger a Aree y llevárselo, para expulsarle del país. Aree se resistía a bajar y yo tampoco quería que lo hiciera. Estaba asustada, cada vez había más policías. Esto se alargó hasta las 18:00 de la tarde. En ese tiempo tuve que ir al colegio a buscar a mis hijos. Cuando volví los policías seguían allí, había incluso más que antes. Los niños no entendían nada y estaban muy asustados.

Los policías estaban golpeando la puerta muy fuerte, diciendo que si Aree no bajaba iban a romper la puerta, y que les daba igual cuanto tiempo tendrían que quedarse ahí, que no se pensaban mover hasta que Aree saliese. Todo esto en presencia de los niños.

